


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# IRAUNKORTASUN MEMORIA 2017

**Iraunkortasunaren  
arloko zuzendaritza**

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)



errian ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea



# Aurkibidea

<b>1. SARRERA</b> .....	4
<b>2. UPV/EHUKO IRAUNKORTASUNEN ZUZENDARITZA</b> .....	5
2.1 Helburuak .....	5
2.2 Langileak .....	6
2.3. Harremanak eta kokapena .....	7
<b>3. 2017N GARATUTAKO EKINTZAK</b> .....	8
<b>3.1. Unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean aurrera egitea</b> .....	8
3.1.1. Hondakinak .....	8
3.1.2. Energia .....	10
3.1.3. Mugikortasuna .....	12
3.1.4. Erosketa eta kontsumo arduratsua .....	13
3.1.5. Ingurumen eragina ebaluatzea .....	15
3.1.6. Ikastegietako konpromisoa ingurumenarekiko .....	16
3.1.7. Bestelakoak: ekitaldiak .....	17
<b>3.2. Lankidetzara lana sustatzea unibertsitate talde ezberdinen artean, UPV/EHUren iraunkortasun arazoak konpontzeko</b> .....	19
3.2.1. Iraunkortasunerako Berrikuntza Proiektuak 2016/17 .....	19
3.2.2. Campus Bizia Lab: 2016/17 esperientzia pilotua .....	21
3.2.3. Campus Bizia Lab Programako Lehen Deialdia .....	23
<b>3.3. Garapenerako Unibertsitate Lankidetzara bultzatzea.</b> .....	27
<b>3.4. Iraunkortasunaren eta sareko parte-hartzearen inguruko prestakuntza osagarria unibertsitate komunitatearen esku uztea</b> .....	29
3.4.1. Ikasleentzako prestakuntza .....	29
3.4.2. Irakasleentzako prestakuntza eta iraunkortasuna hezkuntza curriculumean barneratzeko berrikuntza proiektuak .....	32
3.4.3. Iraunkortasunerako Hezkuntzako sareetan parte-hartzea .....	33
<b>3.5. Ikasleen parte-hartzea sustatzea elkartzunezko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan</b> .....	35
3.5.1. Garapenerako Lankidetzaren inguruko Lan Praktikak eta Gradu Amaierako Lanak egiteko Programa .....	35
3.5.2. Gaztenpatia programa .....	38
3.5.3. Izapideak, ikasleek boluntariotza jarduerak erakundetan egin ditzaten; eta hautazko kredituak aitortzea .....	40
3.5.4. Boluntariotza autogestionatuko ekimenak sustatzea eta babestea .....	42
<b>3.6. Errefuxiatuei laguntzeari dagokionez UPV/EHUk hartu dituen konpromisoak garatzea</b> .....	45



<b>3.7. Hitzarmenak bultzatzea eta iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloan lan egiten duten entitateekin batera egiten dugun lana ikusgarri egitea</b> .....	49
3.7.1.Hitzarmenak .....	49
3.7.2.Iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloan lan egiten duten entitateekin batera egiten dugun lana ikusgarri egitea.....	50

<b>ERANSKINAK</b> .....	54
1. ERANSKINA: Iraunkortasunerako Berrikuntza Proiektuetatik jaiotako argitalpenak (2016/17) .....	55
2. ERANSKINA: 2016/17 ikasturtean UPV/EHUko ikasleen boluntariora jardura hartu duten erakundeak.....	57
3. ERANSKINA: III. Boluntariora Azokan parte hartu zuten erakundeak .....	59
4. ERANSKINA: UPV/EHUko prentsa oharrak.....	61



## 1. SARRERA

UPV/EHUko Iraunkortasuneko Zuzendaritzaren lehen memoria da hau eta iraunkortasunaren arloan 2017n egondako aurrerapausoak islatzen ditu. Kudeaketan, irakaskuntzan eta ikerketan, bai eta unibertsitate hedakuntzan ere egondako eragin positiboa agertzen du eta Iraunkortasuneko Zuzendaritzaren eginkizun nagusien inguruan antolatua dago.

1. Unibertsitatearen kudeaketa iraunkorra areagotzea.
2. Iraunkortasuneko berrikuntza proiektuak eta garapenerako unibertsitate lankidetzako proiektuak bultzatzea.
3. Iraunkortasunaren arloaren inguruko prestakuntza eskaintzea unibertsitate komunitate osoari.
4. Unibertsitate komunitatearen partaidetza sustatzea elkartasunezko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan.
5. Errefuxiatuei laguntzeari dagokionez UPV/EHUk hartu dituen konpromisoak garatzea.
6. Lankidetzak bultzatzea eta iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloan lan egiten duten entitateekin batera egiten dugun lana ikusgarri egitea.

Memoria hau argitaratuz, giza garapen iraunkorra sustatzeko xedearekin Iraunkortasuneko Zuzendaritzak gauzatu dituen ekintzak zabaldu eta interesatutako pertsona guztiek duten informazio beharra asetzeaz gain, zentzu honetako memoriak eta txostenak egitea eskatzen duten nazio-mailako eta nazioarteko organismo ezberdinen eskaerei erantzun nahi izan diegu ere.

Gauzatu ditugun ekintzetako batzuk Eusko Jaurlaritzak programa kontratuaren bidez helarazi digun finantzazioari esker burutu dira. Kudeaketa, irakaskuntza, prestakuntza eta gure unibertsitate komunitatearen sentsibilizazioari dagokienez iraunkortasuna lantzea ahalbidetu digu aipatu kontratuak, harremanak estutuz gizartearekin.



## 2. UPV/EHUKO IRAUNKORTASUNEN ZUZENDARITZA

UPV/EHUko Iraunkortasuneko Zuzendaritza 2017ko otsailean jaio zen. Bere xedea da iraunkortasunaren kultura eta konpromiso soziala unibertsitate komunitatearen barruan bultzatzea.

Bere estatutuetan, eguneroko jardura ekonomikoki, sozialki eta ingurumenari dagokionez era iraunkorren garatzeko konpromisoa hartu du UPV/EHUK. Konpromiso hori berretsiz, 2012-2017 Plan Estrategikoaren ardatzetako bat (V. ardatzak) Konpromiso Sozialari eskainita dago eta ondokoak dira bere helburuak:

- “Elkarrizketa sozialeko eremu erkideak eta hausnarketarako eta eztabaidarako elkartzekoak sortuko ditu, bere inplikazio soziala areagotzeko aukera emango duten bide berriak sustatzeko helburuarekin.”
- “Ezagutza sortzean, konpromiso etikoarekin eta gizarte-erantzukizuneko konpromiso argiarekin jokatu du, herritarren belaunaldi berrien prestakuntzako gako-agente gisa eta iritzia sortzeko erreferente gisa.”
- “Unibertsitatearen hedapena eta proiektzioa desberdintasun sozial eta kulturalak murriztera eta bizitza politiko, kultural eta sozialean parte-hartze hobea izateko aukera ematen duten baldintzak sortzera bideratuko ditu.”
- “Unibertsitate-komunitatea modu aktiboagoan inplikatuko du bere ingurune arazo sozial eta kulturaletan.”

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa Zuzendaritza honi atxikita dago. Zerbitzu horren helburua da Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren sustatzea UPV/EHUUn, zeina unibertsitate komunitate osoak bere laguntza jasotzen dutenen eta bere gizartearen beraren gaitasunak sendotzeko helburuarekin egiten duen elkartasuneko esfortzua izango bailitekeen.

Erakunde mailan, Iraunkortasuneko Zuzendaritza Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturagintzaren arloko Errektoreordetzaren mende dago eta hiru campusetako errektoreordetzekin koordinatzen da.

### 2.1 Helburuak

Ondokoak dira UPV/EHUko Iraunkortasuneko Zuzendaritzaren helburuak:

- Gure bitartekoen erabilera eraginkorragoa bultzatzea, ingurumenaren eta pertsonen bizi-kalitatearen babesa eta hobekuntzarekin koherentea.
- XXI. mendean ditugun arazoei aurre egiteko sormenezko konponbide eraginkorrak garatzea ahalbidetuko duen ingurune akademiko ekintzaile eta berritzaile bat sortzea.
- Gizartearekin konprometituta dagoen eta inklusioa, ekitatea eta iraunkortasuna sustatuko dituen unibertsitate bateranzko aldaketa bultzatzea.

- Unibertsitate jardueraren onurak maximizatzea eta eraginak minimizatzea xede duten ekintzak abiaraztea, gure inguruaren eta planetaren eraldatze sozioekonomikoa eta gizarte garapena sustatzea.

Ondokoak dira UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoaren helburu bereziak:

- Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren unibertsitatearen gizarte eginkizunean txertatzea.
- Elkartasun balio unibertsitatearen oinarritutako prestakuntza sustatzea, eta gizarte arazoei buruzko eztabaidetan parte hartzea, zuzentasuna, iraunkortasuna eta giza eskubideen errespetua oinarri hartuta.
- Munduko hainbat lekutan gizakiaren garapena baldintzatzen duten era askotako arazoak ezagutzeko, ikertzeko eta hedatzeko bultzatzea, unibertsitateko kideak arazo horietaz jabetu daitezela.
- Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren zerbitzura giza baliabide espezializatuak jartzea, eta, beste erakunde eta gizarte eragile batzuekin batera, lankidetzarako proiektu eta programak abian jartzeko zereginetan parte hartzea.
- Unibertsitateko kideen artean elkartasun aktiboa eta boluntario lana indartzea, ikasleen artean batik bat, eta haien boluntario lana erraztea esparru espezifiko batean, programa propioak martxan jarri edo ikasleak beste erakunde batzuetara bideratuz.

## 2.2 Langileak

Ondokoak dira Iraunkortasuneko Zuzendaritzaren langileak: zuzendari bat, lau teknikari eta administrazio eginkizunak egiteko bi pertsona.

Kargua	Izen-deiturak	Telefonoa	Posta-e
Iraunkortasuneko Zuzendaria	Estibaliz Saez de Camara Oleaga	946018212 946012039	<a href="mailto:estibaliz.saezdecamara@ehu.eus">estibaliz.saezdecamara@ehu.eus</a>
Iraunkortasuneko Teknikaria	Aitxiber Zallo Kamara	946013083	<a href="mailto:aitxiber.zallo@ehu.eus">aitxiber.zallo@ehu.eus</a>
Ingurumen Kalitatearen arloko Teknikari Rudeatzailea	Isaac Barrio Marin	943018164	<a href="mailto:isaac.barrio@ehu.eus">isaac.barrio@ehu.eus</a>
Rudeaketa Teknikaria	Paloma Sanchez Valdivielso	946017933	<a href="mailto:paloma.sanchez@ehu.eus">paloma.sanchez@ehu.eus</a>
Lankidetzaren Teknikaria	Estibaliz Martinez Villabeitia	946012221	<a href="mailto:estibaliz.martinez@ehu.eus">estibaliz.martinez@ehu.eus</a>
Administratzailea	Amaia Aguirre Ibarra	946012855	<a href="mailto:amaia.aguirre@ehu.eus">amaia.aguirre@ehu.eus</a>
Administratzaile laguntzailea	Espe Etxeandia Egidazu	946012067	<a href="mailto:espe.etxeandia@ehu.eus">espe.etxeandia@ehu.eus</a>



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

## 2.3. Harremanak eta kokapena

### Harremanak

Posta elektronikoa: [iraunkortasuna@ehu.eus](mailto:iraunkortasuna@ehu.eus)

Posta elektronikoa: [oficop@ehu.eus](mailto:oficop@ehu.eus)

### Kokapena

Iraunkortasuneko Zuzendaritza

Liburutegi Nagusiaren Eraikina, 6. solairua

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Bizkaiko campusa

Sarriena auzoa z/g – 48940 Leioa-Erandio (Bizkaia)

### Webgunea

<https://www.ehu.eus/es/web/iraunkortasuna>



### **3. 2017N GARATUTAKO EKINTZAK**

Aurreko helburuak lortu ahal izateko, UPV/EHUko Iraunkortasuneko Zuzendaritzak ekintza ezberdin ugari antolatu eta/edo koordinatu ditu, alor ezberdinetan. Ondoko lan-ildoak dira garrantzitsuenak, besteren artean: unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean aurrera egitea; lankidetzaren bultzatzea unibertsitate talde ezberdinen artean UPV/EHUK dituen iraunkortasun arazoei aurre egiteko; Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren indartzea; iraunkortasunaren eta sareko parte-hartzearen inguruko prestakuntza osagarria unibertsitate komunitatearen esku uztea; ikasleen parte-hartzea sustatzea elkartasuneko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan; UPV/EHUK errefuxiatuei laguntzeari dagokionez hartu dituen konpromisoak garatzea, hitzarmenak sustatzea eta iraunkortasunaren eta lankidetzaren arloan lan egiten duten erakundeekin egiten den lankidetzaren lana ikusaraztea.

#### **3.1. Unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean aurrera egitea**

Unibertsitateak ezagutza gune naturalak dira eta, ondorioz, gizartea etengabe eraldatzen duen erreminta bat dira. Botere hori dutenez, unibertsitateek gerok eta inplikazio handiagoa izan behar dute ingurumen kontzientziarioari dagokionez, alderdi hori beren diziplina eta kudeaketa sistema guztietan txertatuz.

UPV/EHUK 2012/2017 eperako ezarrita duen Plan Estrategikoaren Konpromiso Soziala izeneko V. Ardatzeko ekintzetako bat da "Ingurumena eta baliabide naturalak errespetatzeko premiari buruz kontzientziatzea, unibertsitatea bere funtzionamenduan iraunkorra izateko behar diren ekintzak ezarriz, ingurunea errespetatzen duten ereduak sustatuz eta ingurumen-balioak suspertuz". Eta, horrexegatik, unibertsitateko ikastegietako eta eraikinetako kudeaketa iraunkorrerako ekintzak bultzatzen jarraitu dugu 2017. urtean, gure jarduerak ingurumenean duten eragina murriztu ahal izateko. Jarraian azaltzen ditugu.

##### **3.1.1. Hondakinak**

Kudeaketa iraunkorraren arloan, UPV/EHUko konpromisoetako bat da ikastegi eta ikergunetan sortzen diren hondakinen kudeaketa arduratsua. Iraunkortasuneko Zuzendaritzak unibertsitate komunitatearen ingurumen kontzientzia sustatzea xede dituen ekintzak koordinatzen ditu, arreta berezia eskainiz sentsibilizazioari eta hondakinak kudeatzeko estrategiarekiko inplikazioari.

Ondokoak dira lan-ildo nagusiak:


- Hondakin arriskutsuei dagokienez indarrean dagoen legediaren betetzea bermatzea.
- Hondakinak kudeatzeko protokoloa etengabe hobetzea, unibertsitatean zein ekoizpen zentro ezberdinetan.
- Hondakin arriskutsuen ateratzea koordinatzea kanpoko enpresekin.
- Aholkularitza teknikoa eskaintzea ikastegi eta unibertsitate egiturei, hondakin arriskutsuei dagokienez.

- Ingurumenaren eta hondakinen kudeaketari buruzko prestakuntza eta informazio orokorra eta/edo berezia eskaintzeko ikastaroen diseinuen eta irakaskuntzan laguntzea.
- Sentsibilizazio eta kontzientziazio ekintzak eta kanpainak koordinatzea, hondakin arriskutsuak minimizatu eta era arduratsuan kudeatzeko.

2017. urtean ondoko ekintzak gauzatu dira, hain zuzen:

- Jatorri kimikoko hondakin arriskutsuak prebenitzeko aukera aztertu da izaera horretako hondakin gehien sortzen dituzten lau ikastegietan: Zientzia eta Teknologia Fakultatea, Kimika Fakultatea, Joxe Mari Korta Ikerketa Zentroa eta Farmazia Fakultatea. Hondakin mota hori prebenitu eta hobeto kudeatzeko neurriak identifikatu dira. Identifikatutako neurriak bereziak dira arestian aipatu lau zentroentzat; eta orokorrak UPV/EHU osoarentzat. Azterlan hori Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoarekin (IHOBE) laguntzarekin egin dugu. Azterlan horren ondorioei esker, > 25 jardunbide egoki atera ditugu laborategietan sortzen diren hondakinen kantitateak eta arriskutsutasuna ekonomikoki eta teknikoki egingarriak diren mailetaraino murrizteko. Aurreikuspenen arabera, jardunbide egoki horien eskuliburua 2018. urtean zehar argitaratu eta zabalduko da.
- Azterlan horretan ikusi ahal izan denez, sorturiko hondakin arriskutsuen zati handi bat erabili gabe ere bota egin diren errektibo kimikoak edo laborategi materialak dira. Horrexegatik, UPV/EHUko irakasleei eta teknikariei errektiboaren eta laborategi-materialen truketzea ahalbidetuko dien informatika-aplikazio bat garatzen ari gara (LAB-TRUKE).
- UPV/EHUko ikastegi guztietan hondakin arriskutsuak maila txikian sortzen dituztenen erregistroak berrikusi eta eguneratu dira eta ikergune berri guztiak inskribatzea eskatu zaio Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritzari. Ikergune berrietan errektiboak eta hondakin arriskutsuak gordetzeko guneak prestatzeko aholkularitza eskaini da.
- 3 prestakuntza ikastaro antolatu dira, "Hondakin arriskutsuen gestio iraunkorra UPV/EHUn: sailkatzea, minimizazioa eta tratamendua" izenburuarekin. 4 orduko ikastaro horiek 2017ko urtarrilaren 24, 25 eta 26an egin ziren Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako campusetan, hurrenez hurren. Ikastaroetan, unibertsitate talde ezberdinetako (JAP, IRI eta ikasleak) 115 pertsonak parte hartu zuten: 75 emakumezko eta 40 gizonezko. 1. Irudiak parte-hartzaileen banaketa irudikatzen du talde, genero eta campusen arabera.

Ikastaroen amaieran, parte-hartzaileek ebaluazio inkesta bat bete zuten. Bertan, adierazpen ezberdinak proposatu zitzaizkien antolakuntza, edukiak, dokumentazioa eta abarrekin zuten akordio edo desadostasun maila adieraz zezaten. Ikastaroak jaso zuen gogobetetasun maila orokorra 10/8.6koa izan zen; azalpenek oso balorazio ona jaso zuten (10/9.0). Iradokizunak eta iruzkinak jaso ziren ere, etorkizuneko edizioak hobetu ahal izateko.



**1. Irudia: "Hondakin arriskutsuen gestio iraunkorra UPV/EHUn: sailkatzea, minimizazioa eta tratamendua" ikastaroko parte-hartzaileak taldeka (ezkerrean), generoka (erdian) eta campusen arabera (eskuinean).**

- Presentziazko ikastaroen osagarri gisa, "Jardunbide egokiak laborategietan" izeneko online ikastaro baten bigarren zatia diseinatu da. Bere xedea da hondakin arriskutsuen kudeaketa lantzea. Ikastaroaren bigarren zati horrek 25 ordu ditu, unibertsitate komunitate osoa du jomuga eta euskaraz zein gazteleraz egongo da eskuragarri, 2018tik aurrera, eGelapi plataforma birtualaren bitartez.



Hondakinen arloan gauzatutako beste ekintza batzuk:

- Edukiontzia jarri dira, hiri hondakinen zati ezberdinak gaika jaso ahal izateko unibertsitate ikastegi guztietan.
- Ur botilen orde, pitxerrak eta basoak jarri dira bilera eta ekitalditan.

### 3.1.2. Energia

2017. urtean, Energia elektrikoaren kontsumo arduratsurako sentsibilizazio proiektua, UPV/EHUko ikastegietan erabilera sistema eta patroieta energia eraginkortasuna monitorizatuta eta hura hobetzeko estrategiak modu parte hartzailean prestatuta proiektuaren hasierako emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egin da UPV/EHUko 4 zentrotan: Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (Gipuzkoako Irakasleen UE), Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoa Atala), Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Unibertsitate Eskola eta Bilboko Ingeniaritza Eskola (I. Eraikina).

Presentziazko bilerak egin ziren lau ikastegietan, monitarizazio proiektu honetako irakasle arduradunen, Iraunkortasuneko Zuzendaritzaren ordezkarien eta ikastegi bakoitzeko ingurumena hobetzeko taldearen partaidetzarekin. Bilera horietan, Control for Energy aplikazioaren inguruko prestakuntza tailer bat eskaini zen.



Ikastegi bakoitzean aukeratutako zirkuituen energia kontsumoa monitorizatzeko erabiltzen da aplikazioa.

Energia auditoretzetan lorturiko hasierako emaitzetatik abiatuta, hobekuntza ekintzak gauzatu dira, pixkanaka-pixkanaka, UPV/EHUko eraikinetako sistemak, ekipoak eta instalazioak hobetzeko. Xedea da energia aurreztea eta eraginkortasuna hobetzea 2018. urtean.



**2. Irudia: Energia monitorizatzeko proiektua abian duten ikastegietan eginiko trebakuntza tailer eta bileren argazkiak.**

Bestalde, Campus Bizia Lab Programa esperientzia pilotuaren baitan, "Cómo generar en las personas y en los contextos, procesos de activación (reflexión, concienciación y acción) para cambiar nuestras prácticas diarias hacia un consumo justo y responsable, a través de una experiencia con la factura de la electricidad, de forma que podamos contribuir a transformar el mundo a un mundo más justo" izeneko proiektua garatu zen. Aipatuan, UPV/EHUko lau eskola eta fakultateko JAP, IRI eta ikasleek parte hartu zuten.

Proiektuan parte hartu zuten ikasleek faktura elektrikoaren inguruko informazio tailer bat diseinatu eta antolatu zuten. Jomuga unibertsitate komunitatea zen eta helburua, berriz, elektrizitate enpresen garrantasun eskasaren eta elektrizitate kontsumoa murriztearen garrantziaren inguruan sentsibilizatzea eta kontzientziatzea. Informazio tailer hori 2017ko martxoaren 22an eta 29an egin zen Bilboko Hezkuntza Fakultatean eta unibertsitate komunitateko 30 lagun bertaratu ziren: 19 emakumezko eta 11 gizonezko.

Energiaren arloko beste ekintza batzuk:

- Orain arteko argien ordez LED argiak jarri dira eta presentzia detektagailuak eta iragankortutako etengailuak instalatu dira, energia eraginkortasuna areagotzeko.
- Argiztapeneko instalazio elektrikoak berritu dira ikasgela eta laborategi ezberdinetan, argiztapenaren inguruko baldintzak bete ditzaten.
- Eguzki xaflak instalatu dira Bizkaiko Campuseko ikastegi ezberdinetan.



### 3.1.3. Mugikortasuna

Bere ingurumen helburuak lortu ahal izateko UPV/EHUK 2017. urtean landu dituen beste alderdietako bat mugikortasuna da. Izan ere, energia kontsumoari eta espazioari, atmosferarako isurketei eta abarrei dagokienez ingurumen eraginik handiena duten unibertsitate jardueraren aldagaietako bat da.

Horrexegatik, ekintza ezberdinak gauzatu dira 2017. urtean protagonismo handiago emateko motorrik ez duten ibilgailuei eta garraio kolektiboari eta okupazio baxuko ibilgailu pribatuaren erabilerari protagonismoa kentzeko.



2017ko irailean, UPV/EHUK Mugikortasun Iraunkorraren aldeko Europako Sarearekin bat egin zuen. Ekimen hori Europako Batzordeak LIFE programako U-MOB delakoaren baitan sortu da.

Proiektu europar honen xedea da mugikortasun iraunkorraren inguruko jardunbide egokiei buruzko ezagutzen truketzea eta transferentzia sustatzea Europako unibertsitateen artean. Honela, unibertsitate komunitatearen joan-etorrien ondoriozko CO<sub>2</sub>-ko isurketak eta beste atmosfera kutsatzaile batzuk murrizteko erreminta izango da. NOVOTEC Ingurumen aholkularitzako enpresa buru duen proiektuak mugikortasun iraunkorreko praktiken aplikazioan lider diren Europako lau unibertsitate biltzen ditu: Bartzelonako Unibertsitate Autonomia, Rotterdameko Erasmus Unibertsitatea (Holanda), Università degli Studi di Bergamo (Italia) eta Politechnika Krakowska (Polonia).

Hiru atxikitze-maila dauzka sareak eta, aipatuek, inplikazio eta onura maila ezberdinak dakartzate. UPV/EHU maila gorenean sartu da, 3.ean; horrek esan nahi du mugikortasunaren arloko jardunbide egokiak exekutatu beharko dituela epe motzean: hau da, garraio publikoa, bizikleta, oinez egindako joan-etorriak sustatu eta ibilgailu pribatuaren erabilera murrizteko ekintzak abiarazi beharko ditu datozen lau urteotan.

Horrez gain, mugikortasunaren inguruko diagnostiko bat egin du 2017ko bigarren seihilekoan. Hurrengo pausoa UPV/EHUko campusetarako Mugikortasun Iraunkor eta Seguruko Plan bat egitea da.

Bestalde, mugikortasun iraunkorraren aldeko neurri iraunkorrek mantendu ditugu; ondokoak, esaterako:

- VAO3+ izeneko Lehentasuneko aparkalekuak okupazio handiko ibilgailuentzat (3 bidaiari edo gehiago) Bizkaiko Campusean (Sarriko eta Leio-Erandioko ingurua).
- Autoa partekatzeko online plataforma hiru campusetako webgunean.
- Bizikletak aparkatzeko lekuak hiru campusetan areagotzea pixkanaka-pixkanaka, bizikletaren erabilera sustatzeko.



Behin-behineko neurrien artean, nabarmentzekoak dira 2017ko Mugikortasunaren Europako Astea (MEA) izandako parte-hartzea. Astea irailaren 16a eta 22a bitartean ospatu zen, "Partekatuz urrunago iritsiko zara" lelopean.



Aste horretan zehar ekimen ezberdinak egin dira hiru campusetan, okupazio baxuko ibilgailu pribatuaren ordez egon daitezkeen aukera ezberdinei ikusgarritasuna emateko.

#### Arabako Campusean:

- Bizikletak konpontzeko tailer bat antolatu zen, Vitoria-Gasteizko Udalaren Ingurumen Ikasketetako Zentroaren (IIZ) laguntzarekin. Irailaren 20an egin zen, 13:30etatik 15:00etara.

#### Bizkaiko Campusean:

- Autoa partekatzekeo plataforma Bizkaiko Campuseko webgunearen hasiera-orrian zabaldu zen, "Unirako zure bidaiak partekatzekeo lagunak aurki itzazu" lelopean.

#### Gipuzkoako Campusean:

- Bizikletaren tailerra eta standa. Informazio standa Ignacio M<sup>a</sup> Barriola Zentroko arkupetan eta Oñati plazan, Arkitektura Goi-eskola Teknikoaren aurrean, irailaren 20an eta 21ean, 12:00etatik 15:00etara, Kalapie Hiriko Txirrindularien Elkartearen laguntzarekin. Bertaratu zirenek beren bizikleta konpontzen ikasi zuten eta hiriko bidegorrien hedapenari, bizikleten lapurretak saihesteko eta txirrindularientzako erabilgarri oso diren gailuen inguruko aholkuak jaso zituzten.

Ingurumenaren arloko beste ekintza batzuk:

- Mugikortasunaren inguruko atal bat sortzea iraunkortasuneko webgunean

### 3.1.4. Erosketa eta kontsumo arduratsua

Bere kontratazioen esleipenean eta exekuzioan etika, gizarte eta ingurumen irizpideak sartzeko konpromisoa hartu du UPV/EHUK. Horretarako, Gizarte, etika eta ingurumen irizpideak bere kontratazioetan barneratzeko errektorearen zirkularra izeneko zirkularra argitaratu zuen. Honela, UPV/EHUKo kontratazio zerbitzuak aipatu irizpideak kontratu ezberdinetan sartu ditu, Iraunkortasuneko Zuzendaritzaren eta IHOBE – Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren laguntzarekin.



2017n gauzaturiko ekintzen artean, nabarmendu beharra dago UPV/EHUK bat egin zuela, 2017ko apirilaren 6ko Gobernu Kontseiluaren bitartez, Declaración de las Universidades españolas a favor del comercio justo y el consumo responsable delakoarekin.

Deklarazio horri atxikimendua eginaz, 12. Garapen Iraunkorreko Helburua lortzen laguntzeko konpromisoa hartu du, "kontsumo eta ekoizpen eredu iraunkorrak bermatzeko". Kontsumo Arduratsuak produktu eta zerbitzuak aukeratzeko ekintzak hartzen ditu barne: hau da, kalitatea eta prezioaz gain, beren ingurumen eta gizarte eragina eta egin edo eskaintzen dituzten enpresek giza eskubideekiko duten jarrera eta begirunea aintzat hartuko dira ere aukeraketa egiterakoan. Deklarazio horrek berdintasun, gardentasun, erantzukizun, iraunkortasun eta elkartasun printzipioetan oinarritutako merkataritza eredu bat babesten du, hau da, bidezko merkataritzak sustatzen duen eredu; eta bidezko merkataritzatzat hartzen du talde ekoizleen eskubideen errespetuan oinarrituriko nazioarteko merkataritza sistema alternatibo hori, Europako Parlamentuak txirotasunarekin bukatzeko erreminta eraginkor izendatu duena.

Beste ekintza batean, "Invisible Express" laburmetraien lehiaketaren V. Edizioa antolatu da Kultura, Communication y Desarrollo (KCD) GKerekin batera. Bere Gaia "Bidezko Merkataritza eta Kontsumo Arduratsua" izan da. Lehiaketa hori "Zinema Ikusezina. Film Sozialak" Nazioarteko Jaialdiaren baitan kokatzen da eta UPV/EHUko ikasle orok parte hartzeko aukera dauka, bakarka zein taldean. Edizio honetan, UPV/EHUko 7 ikastegitako 122 ikaslek aurkeztu dute beren lana: 66 emakumezko eta 56 gizonezko. 3. Irudiak parte hartzaileen kopurua adierazten du, generoen eta ikastegiaren arabera banatuta. Parte-hartzaileen  $\frac{3}{4}$ ak ia Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatekoak zirela aipatu beharra dago.



**3. Irudia: "Invisible express" lehiaketan parte hartu zuten ikasleak, generoen eta unibertsitate ikastegiaren arabera banatuta.**

"Ganbara" laburmetraiak irabazi zuen lehiaketa eta "Antojo" lanak ikusleen saria lortu zuen.



Bestalde, 2016ko urtarrilean UPV/EHUK Hozkailu Solidarioa lankidetzaren ekimena abiarazi zuen Leioako Ostalaritza Eskolarekin eta Galdakaoko Boluntarioen Gizarte Elkartarekin (GBGE) batera.

Ekimen horren xedea da elikagaien xahuketarekin bukatzea unibertsitateko jangelan eta hondakin organikoaren sorrera murriztea. Urtebete funtzionatzen eman ostean, 2016/17 ikasturtean 10 eta 20 anoa bitartean banatu zituen egunero.



Ostalaritza Eskolak elikagaiak hozkailuan uzten ditu: egunero egiten du, 15:00etatik aurrera eta hozkailua 08:00etatik 20:00etara dago irekia. Aurten, gainera, kafetegiko sandwichak eta pintxoak sartu dira ere.

Hozkailu Solidarioak Ostalaritza Eskolako irakasleei zein ikasleei esker funtzionatzen du, hauek baitira elikagaiak egunero uzteko eta hozkailua higiene egoera aproposetan mantentzeko ardura dutenak.

Nabarmendu beharra dago UPV/EHU mota honetako proiektu bat garatu eta exekutatu duen lehen unibertsitatea dela. Ekimenak, soberan geratutako elikagaien probetxamendua sustatu eta beren xahuketa saihesten du, gehienetan jateko egoera ezin hobean baitaude elikagaiak.

Azkenik, aipatu ere hitzarmen bat negoziatzen ari garela Leioako Ostalaritza Eskolarekin, bidezko merkataritzari, kontsumo arduratsuari eta elikadura burujabetzari loturiko ekimenak sustatu ahal izateko.

Erosketa eta kontsumo arduratsuen arloko beste ekintza batzuk:

- Birziklatutako tonerren erosketa sustatzea
- Paper zuriaren ordez, birziklatutako papera erabiltzea pixkanaka-pixkanaka.
- Kopia funtzio anitzeko inprimagailuetan zentralizatzea.
- Produktuak iraunkortasun irizpideak aplikatuz erabiltzea ekitaldi, ikastaro edo biltzarrak antolatzerakoan.

### 3.1.5. Ingurumen eragina ebaluatzea

2017. urtean, materialen eta energiaren sarrera-irteerak bildu dira Unibertsitatearen ondasun eta zerbitzu karterari loturiko balizko eraginak ebaluatzeko, Ingurumen Arrasto Korporatiboa kalkulatzeko ondoren software libre erabiliz.

Bestalde, UPV/EHUko ingurumen iraunkortasunaren diagnostikoa egin da. Horretarako CRUE-Sostenibilidad batzordeko Evaluación del impacto ambiental de las actuaciones referidas a toda la universidad sobre evaluación de la Sostenibilidad Universitaria (GESU) izeneko lan taldeak garatu duen erreminta erabili da. Unibertsitatearen ingurumen iraunkortasunaren maila ezagutzeko diseinatu da erreminta hori; baina bere ingurumen kalitateari dagokionez etengabeko hobekuntza lortzeko erreminta izan daiteke ere. Unibertsitatearen hiru arlo nagusitan oinarritu da aipatu erreminta: antolakuntza, irakaskuntza eta ikerketa eta kudeaketa.

1. Taulak erremintak aztertu dituen 11 arloetan lorturiko emaitzak biltzen ditu, bai eta arlokako batezbesteko emaitzak ere. Aipatzekoa da UPV/EHU % 50etik gertu dagoela, edo maila hori gainditzen duela aztertutako arlo gehienetan, hondakinen kasuan ez ezik, non % 10era ere iritsi ez den. Emaitzarik onenak irakaskuntzaren arloan lortu dira (% 62,5); ikerketa eta teknologiaren transferentzia (% 60,7) eta komunitatearen inplikazioa eta sentsibilizazioa (% 56,7) datoz gero.


**1. Taula: UPV/EHUko ingurumen eraginaren Ebaluazioa. Emaitzak. GESU erreminta erabiliz lortu dira**





Adierazleak	Puntuazioa	Gehienezkoa	Portzentajea
Iraunkortasuneko Politika	7	13	% 53,8
Unibertsitate komunitatearen inplikazioa eta	8,5	15	% 56,7
<b>GUZTIRA 1. Arloa: Antolakuntza</b>	<b>15,5</b>	<b>28</b>	<b>% 55,4</b>
Irakaskuntza	7,5	12	% 62,5
Ikerketa eta teknologiaren transferentzia	8,5	14	% 60,7
<b>GUZTIRA 2. Arloa: irakaskuntza eta Ikerketa</b>	<b>16</b>	<b>26</b>	<b>% 61,5</b>
Hirigintza eta biodibertsitatea	2,5	6	% 41,7
Energia	5	21	% 23,8
Ura	4	11	% 36,4
Mugikortasuna	4,5	10	% 45,0
Hondakinak	0,5	6	% 8,3
Erosketa Berdea	8,5	17	% 50,0
Unibertsitate jardueraren ingurumen eraginaren	2	15	% 13,3
<b>GUZTIRA 3. Arloa:</b>	<b>27</b>	<b>86</b>	<b>% 31,4</b>
<b>Ebaluazio Globala</b>	<b>58,5</b>	<b>140</b>	<b>% 41,8</b>

4. Irudiak UPV/EHUK lortu dituen emaitzak inkesta bete duten Espainiako beste unibertsitate guztien (33, guztira) batezbestekoarekin alderatzen ditu. Ikus daitekeenez, batezbestekoak ez du % 75a gainditzen sarturiko 11 arloetatik bakar batean ere. Batezbestekoarekiko alderik handiena agertzen duten UPV/EHUren emaitzak ondokoak dira: alde batetik, Energia, Hondakinak eta Unibertsitate jardueraren Ingurumen Eraginaren Ebaluazioa; horietan, UPV/EHUren emaitzak txarragoak dira. Eta, bestalde, irakaskuntza eta ikerketa eta ezagutzaren transferentzia, non UPV/EHUren emaitzak batezbestekotik gora dauden.



4 Irudia: UPV/EHUK lortu duen puntuazioaren (%) eta diagnostikoa egin duten Espainiako unibertsitateen batezbestekoaren arteko alderaketa, arloka

### 3.1.6. Ikastegietako konpromisoa ingurumenarekiko

Ikastegietako Ingurumena Hobetzeko Taldeek (IHT) eta Ingurumen Batzordeek Iraunkortasuneko Zuzendaritzaren laguntza dute etengabeko hobekuntza iraunkortasunaren arloan bermatzea xede duten ekintzak diseinatu, exekutatu eta ebaluatzeko.

2017. urtean, IHTek eta Ingurumen Batzordeek aholkularitza eta informazioa jaso dute ingurumena kudeatzeko sistemen egiaztatgiriaren inguruko eskariak bete eta auditoretzak prestatzeko.

2. Taulak Ekoscan Plus egiaztatgria duten unibertsitate ikastegiak jasotzen ditu. Ekoscanek hasiera auditoretza bat eskatzen du, gehi beste lau jarraipeneko auditoretza ere, egiaztatgria lortzeko.



**2. Taula: Ekoscan Plus egiaztatgria duten unibertsitate ikastegiak**

Unibertsitate ikastegi edo eraikina	Eguneratua (x)
Karlos Santamaria Zentroa	x
Ignacio Maria Barriola Zentroa	
Bilboko Ingeniaritza Eskola (I. Eraikina)	x
Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Donostia)	x
Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola	x
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Donostia)	
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Elkano)	x
Bilboko Hezkuntza Fakultatea	x
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	x
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Donostiako atala)	
Arabako Campuseko Errektoreordetza	
Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza Juliantegi	

Ikastegiak iraunkortasunarekiko duten konpromisoari buruzko informazioa bildu da, 20 unibertsitate ikastegiak eta 3 Esperientzia Gelek azken urteotan konpromisoak hartu dituztela egiaztatuz.

### 3.1.7. Bestelakoak: ekitaldiak

UPV/EHUko Iraunkortasuneko Zuzendaritzak ingurumen irizpideak ekitaldien diseinuan eta garapenean sartzearen aldeko apustua egin du, IHOBE – Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren Erronka Garbia proiektuak gomendatzen duen bezalaxe. Integrazio horrek, ingurumenaren babesa sustatzeaz gain, onura ezberdinak dakartza antolakuntzaren ardura izan duten entitateentzat eta, aldi berean, legatu positiboa uzten du inplikaturiko parte-hartzaile eta eragileentzat.



## ERRONKA GARBIA

INGURUMEN ALDETIK  
JASANGARRIA DEN  
EKITALDIA

Erronka Garbia Eusko Jaurlaritzaren egiaztagiri bat da. Ekitaldiaren gauzatzean sorturiko ingurumen eragin negatiboak murrizteko helburuarekin beren diseinuan eta antolakuntzan ingurumen neurriak sartzen dituzten ekitaldiak aitortzen ditu.

2017. urtean, ingurumenari dagokionez iraunkor izan den UPV/EHUren lehen ekitaldia antolatu da. Unibertsitate Irakaskuntzako Estatu Sareak eta Berrikuntza, Gizarte Konpromiso eta Kultur Ekintzako Errektoreordetzak "Unibertsitatea eta Garapen Iraunkorra: Etorkizuna konprometitzen duten ikaskuntza esperientziak" izenburuarekin antolatu zuten RED-U 2017 Nazioarteko Biltzarra. Jarduketa ezberdinak abiarazi ziren ekitaldia ingurumenarekiko abegitsua izan zedin eta Erronka Garbia egiaztagiria lor zezan..

Zehazki, jarduketa ezberdinak abiarazi ziren, sei ardatzen inguruan (mugikortasuna, energia, ura, erosketak, instalakuntzak eta hondakinak), ekitaldiaren fase ezberdinetan (diseinu eta plangintza, antolakuntza, gauzatzea eta jarraipena, desmuntatzea eta itxiera). Ondokoak dira nabarmentzekoak horien artean:

- Ekitaldia garraio publikoko sarearen barruan dagoen eta energia aurrezteko neurriak dituen leku batean egin zen.
- Joan-etorriak motorrik gabeko eta/edo 'Eko' edo 'emisiorik gabeko' ibilgailutan egitea sustatu zen.
- Hondakinen sorreraren prebentzioa eta horien gaikako biltzea.
- Material birziklatuak eta birziklagarriak erabili ziren.
- Biodibertsitatea eta tokiko ingurumen aberastasuna sustatu zen.
- Cateringa ingurumen eta gizarte irizpideak aplikatuz kontratatu zen.
- Gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan dauden gizataldeak, antolakuntzaren parte.
- Genero-berdintasuna sustatu ziren hizlarietara eta zientzia batzordeko eta antolakuntzako batzordekideei dagokienez.

Informazio gehiagorako, ikus [Ekitaldiaren Ingurumen Adierazpena](#).



## 3.2. Lankidetzaren lana sustatzea unibertsitate talde ezberdinen artean, UPV/EHUren iraunkortasun arazoak konpontzeko

3.1 atalean aipatutako unibertsitate ikastegi eta eraikinen kudeaketa iraunkorra sustatzeko, unibertsitatearen partaidetza behar-beharrezkoa da. Horrenbestez, ekintza ezberdinak abiatu dira unibertsitate komunitate guztiaren lankidetzaren lana sustatu eta gure jardueren eragina murriztu ahal izateko. Ekintza horien artean nabarmentzekoak dira Iraunkortasunerako Berrikuntza Proiektuak eta Campus Bizia Lab programa.

### 3.2.1. Iraunkortasunerako Berrikuntza Proiektuak 2016/17

2016ko ekainaren 8an Iraunkortasunaren arloko berrikuntzarako laguntzetarako 4. Deialdia onartu zen. Bere xedea da unibertsitatean eta/edo curriculumean aldaketak proposatu eta UPV/EHUk berak zuzenean aplikatu ditzakeen jarduketak berritzaileak sustatzea, lorturiko emaitzak eta ateratako ondorioak unibertsitate komunitatearen esku jartzeko konpromisoarekin.

Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordearen 2016ko urriaren 10eko Ebazpenaren bitartez, 91 pertsona bildu dituzten 20 proiektu onartu ziren. 3. Taulak proiektuaren izenburua, proiektua koordinatu duen ikastegia eta bere koordinatzailea zehazten ditu. 5. Irudiak parte-hartzaileen banaketa irudikatzen du talde eta generoen arabera. Unibertsitate taldeen artean, azpimarratu beharra dago parte-hartzaile gehienak irakasleak eta/edo ikerlariak izan zirela.


**3. Taula: 2016/17 ikasturtean garaturiko Iraunkortasunerako Berrikuntza Proiektuen zerrenda, unibertsitate ikastegia eta koordinatzailea**

IRAUNKORTASUNERAKO BERRIKUNTZA PROIEKTUAK 2016/17			
	Proiektuaren izenburua	Ikastegia	Koordinatzailea
1	Ongizatea, bizi kalitatea eta prebentzioa unibertsitatean: UPV/EHUko ikasleekin gauzaturiko esperientzia bat	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	Pedro Aramendi Jauregui
2	Hezkuntza iraunkor barneratzailea: ikuspegi berriak unibertsitatean	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	Rosa Arburua Goienetxe
3	Iraunkortasunerako jokalekuak Lehen Hezkuntzako 2. Modulurako	Bilboko Hezkuntza Fakultatea	Araitx Uskola Ibarluzea
4	Iraunkortasun, ekitate eta gizarte erantzukizuneko irizpideak barneratu dituen enpresa eta negozioen kudeaketako heziketa Diagnostikoa eta ekintza proposamena Elkano Atalerako eta Negozioen Kudeaketako Gradu ikasketaren amaierako profilerako	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Elkano)	Pedro Manuel Gomez Rodriguez
5	Birringailu bat diseinatzea eta fabrikatzea plastikoa birziklatzeko planta baterako	Gipuzkoako Ingeniaritza	Eneritz Onaindia Gerrikabeitia





		Eskola (Eibar)	
6	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolaren energia analisia. II. zatia: Azterketa sistema guztira zabaltzea. Energia eraginkortasuna hobetzeko neurrien proposamena	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Eibar)	Maria Gonzalez Alriols
7	Elikadura iraunkorreko eta gizarte erantzukizuneko tailerrak diseinatzea eta hobetzea Vitoria-Gasteizko eskoletan zeliakia Lehen Hezkuntzako haurrentzat	Farmazia Fakultatea	Virginia Navarro Santamaria
8	Auzoak, ikasteko gune: Gizarte ekintzaren arloan lan egiten duten elkarten beharren mapa egitea	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Sarriko)	Miren Barrenetxea Ayesta
9	Estrusio makina bat diseinatzea eta fabrikatzea plastikoak birziklatzeko planta baterako	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Donostia)	Jose Antonio Oriozabala Brit
10	Hazkunde eraginkor, iraunkor eta barneratzailea enpresa simulagailu baten bidez	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Sarriko)	Noemi Peña Miguel
11	Elikagaiak era arduratsuan kontsumitzeko hezkuntza UPV/EHUko ikasleentzat	Farmazia Fakultatea	Marta Arroyo Izaga
12	Ingeniaritza iraunkorra sustatzea eta ikaslearen curriculumean txertatzea: Irakasgaiak eta Gradu Amaierako lanak	Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola	Iñaki Ochoa de Eribe Vazquez
13	Diziplina anitzeko irakaskuntza praktika kolaboratiboak egitea Arabako Campuseko baratz ekologikoan	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (Magisteritza)	Aritz Ruiz-Gonzalez
14	Argi kontsumoaren analisia Bilboko Ingeniaritza Eskolan LED bonbilla alternatiboekin	Bilboko Ingeniaritza Eskola	Javier Bilbao Landatxe
15	GrALerako Ikaskuntza-zerbitzu proposamenak, Haur eta Lehen Hezkuntzako graduetak gaitasunak garatzeko	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	Esther Cruz Iglesias
16	CompostING: INGeniaritza Eskolako unibertsitate komunitatea bio-hondakinen birziklatzean eta bere aplikazioetan inplikaturaz	Bilboko Ingeniaritza Eskola	Estibaliz Saez de Camara Oleaga
17	Ekonomia Iraunkorreko Jardunaldiak UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean	Ekonomia eta Enpresa Fakultatean	David Hoyos Ramos
18	Landaretan oinarritutako energia elektriko berriztagarria sortzea	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Donostia)	Florencio Fernandez Marzo
19	Elikagaien hondakinen konpostatzeak sortu duen substratuan oinarrituta, Bilboko Ingeniaritza Eskolako EUITI eta EUITMOP atalak hartzen dituen eraikinerako landare-aurrealdea diseinatzea eta bere ingurumen eragina aztertzea	Bilboko Ingeniaritza Eskola	M <sup>a</sup> Arritokieta Ortuzar Irigorri
20	Hirigintza plangintza iraunkorra Gipuzkoako Campuserako, bizi zikloaren azterketatik abiatuta	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	Cristina Marieta Gorriti



**5. irudia: 2016/2017 Iraunkortasunerako Berrikuntza Proiektuentzako Deialdian parte hartu zutenen kopurua, unibertsitate komunitatearen taldeen arabera (ezkerra) eta generoka (eskuina)**

1. Eranskinak Iraunkortasunaren arloko berrikuntzarako laguntzetako Deialdiaren proiektuetatik jaiotako argitalpenak zehazten ditu.

**3.2.2. Campus Bizia Lab: 2016/17 esperientzia pilotua**

Campus Bizia Lab (CBL) programaren jatorria Erasmus University Educators for Sustainable Development delako proiektua da. UPV/EHUK 2013-2016 epealdian parte hartu zuen aipatuan. Bere xedea da lankidetzan prozesu bat sustatzea UPV/EHUKo ikasle, irakasle-ikertzaile (JAP) eta administrazio eta zerbitzuetako langileen (IRI) artean unibertsitate beraren iraunkortasuneko erronkei heldu ahal izateko. CBL programak curriculum izaera dauka eta Gradu Amaierako Lanak (GrAL) eta Master Amaierako Lanak (MAL) eginaz gauzatzen da.

2016/2017 ikasturtean, programa honen esperientzia pilotu bat abiarazi zen. Ondokoak ziren bere helburu zehatzak:

- UPV/EHUKo campusetan aurkitutako "iraunkortasun ezeko" erronkak eta arazoak lankidetzan konpontzeko xedearekin lan egingo duen diziplina arteko komunitate bat sortzea.
- UPV/EHUKo campusetan inpaktu handiko eta iraunkortasunari loturiko ikaskuntza-prozesu arrakastatsuak gauzatzea ahalbidetuko duen lan antolaera bat diseinatzea, garatzea eta ebaluatzea.
- "Living Lab" moduko erakunde proiektu bat artikulatzea eta ikusgarri egitea. Honek, bere jardute eremua zabalduko du, pixkanaka-pixkanaka, UPV/EHUKo titulu guztiak barne hartu arte. Halaber, maila ugariako praktika iraunkorrak sortuko ditu.

Esperientzia pilotua hasteko, UPV/EHUKo IRI eta JAP eta kanpoko aditu ezberdinez osaturiko talde bideratzaile bat osatu zen. Honek, aurkitutako beharretan oinarrituta, esperientzia polituan landu beharreko iraunkortasuneko erronkak zehaztu zituen bilkura batean. CBL Programan interesaturiko unibertsitate komunitateko pertsona guztiek bilkura horretara bertaratzeko aukera izan zuten.

Honako erronka hauek aukeratu ziren: 1) Ekonomia zirkularra, 2) trantsizio energetikoa eta 3) komunitate baratzak heziketa gune gisa.




**6. Irudia: 2016ko lehen hiruhilekoan egin zen bilkuraren argazkia. Campus Bizia Lab esperientzia pilotuak landu beharko zituen erronkak erabaki zituen.**

CBL esperientzia pilotu honetan, azkenean, talde ezberdinetako 63 pertsonak parte hartu zuten, 8 proiektu inguru landuz. 4. Taulak proiektuaren izenburua, proiektua koordinatu duen ikastegia eta bere koordinatzailea zehazten ditu.

**4. Taula: 2016/17 ikasturtean garaturiko Campus Bizia Lab Proiektuen zerrenda, unibertsitate ikastegia eta koordinatzailea**

CBL PILOTUA 2016/17			
	Proiektuaren izenburua	Ikastegia	Koordinatzailea
1	Materia organikoa kudeatzea Arabako Campuseko baratz ekologikoan	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	Dani Zuazagoitia Rey-Baltar
2	Karbono arrastoa eta arrasto hidrikoa Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Unibertsitate Eskolan	Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola	Iñaki Ochoa de Eribe Vazquez
3	Osasuna: elikadura iraunkorra eta ohitura osasuntsuak sustatzea	Farmazia Fakultatea	Arrate Lasa Elgezua
4	Gure eguneroko ohiturak bidezko eta ardurazko kontsumo baterantz eramateko aktibazio prozesuak sortzea, pertsona eta kontestuetan: esperientzia elektrizitate fakturarekin	Bilboko Hezkuntza Fakultatea	Pilar Ruiz de Gauna Bahillo
5	Komunikazio kanpaina partehartzaile bat diseinatzea, energia aurreztu ahal izateko edozein unibertsitate ikastegitan	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	Iñaki Barcena Hinojal
6	Elikagaien hondakinak Ostalaritza Eskolan	Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Ibone Ametzaga Arregi
7	Ekonomia eta Enpresa fakultateko energia iraunkortasuna eta energia prestazioak handitzea	Ekonomia eta Enpresa Fakultatean	David Hoyos Ramos
8	Gipuzkoako Campusean baratz ekologiko bat diseinatzea eta ezartzea	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	Cristina Peña Rodriguez

7. Irudiak parte-hartzaileen banaketa irudikatzen du talde eta generoen arabera. JAP langileen eta irakasleen parte-hartzeak Iraunkortasunerako Berrikuntza Proiektuetako horrekiko agertzen duen hazkundea nabarmentzekoa da.



**7. Irudia: Campus Bizia Lab esperientzia pilotuan parte hartu dutenen kopurua, unibertsitate komunitateko taldeen arabera (ezkerra) eta generoka (eskuina).**

Campus Bizia Lab Programaren webguneak erronkak/ekintzak, prozesua, parte-hartzaileak eta emaitzak zehazten ditu.

Deialdi honen baitan, 25 GrAL eta MAL 1 egin dira. Aipatuak, 2017ko ekainaren 22an eta 23an Bizkaia Aretoan (Bilbo) egin zen IRI Mintegia 2017: iraunkortasunaren aldeko hezkuntza izeneko jardunaldian aurkeztuak izan ziren. Jardunaldi horretan, gainera, 2016/17 ikasturtean garaturiko Iraunkortasunerako Berrikuntza Proiektuen eta Campus Bizia Lab proiektuen emaitzak aurkeztu ziren eta iraunkortasunari dagokionez Campus Bizia Lab ekimenak 2017/18 ikasturtean izango dituen erronkak era parte-hartzailean zehaztu ziren ere. Azkenik, 2017/18 ikasturtean garatu beharreko Campus Bizia Lab Programaren 1. Erakunde deialdia aurkeztu zen. Unibertsitate komunitateko 67 pertsonak parte hartu zuten jardunaldian: 37 emakumezko eta 31 gizonezko.



**8. Irudia: IRI 2017 Mintegia: iraunkortasunaren aldeko hezkuntza delakoaren argazkiak. 2017ko ekainak 22-23**

### 3.2.3. Campus Bizia Lab Programako Lehen Deialdia

2017ko uztailaren 11n Campus Bizia Lab programarako laguntzetarako 1. Deialdia argitaratu zen. Berrikuntza, Gizarte Konpromiso eta Kultur Ekintzako Errektoreordetzaren deialdi honen xedea zen UPV/EHU giza garapen iraunkor baten aldeko eragile aktibo bilakatzea ahalbidetuko duten proiektuak sustatzea.





Bere hezkuntza ikuspegia ez da ezagutzen transmisiora mugatzen; aitzitik, iraunkortasunaren aldeko aldaketa eraldatzaile baterako gaitasunak garatu nahi ditu pertsonetan.

Deialdiaren helburu nagusia da unibertsitatean aurkitutako "iraunkortasun ezeko" erronkak eta arazoak detektatzen eta konpontzen lankidetzan lan egingo duen diziplina arteko komunitate baten sorkuntza sustatzea, diru-laguntzak eskainiz proiektuak finantzatzeko.

Deialdian proposatutako erronkak era parte-hartzailean erabaki ziren IRI Mintegia 2017: iraunkortasunaren aldeko hezkuntza izeneko jardunaldian. Ondokoak izan ziren:

- 1. Erronka: Trantsizio energetikoa. Energia kontsumoa murriztea xede duten ekintzak eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea, besteren artean.
- 2. Erronka. Ekonomia zirkularra. Baliabide naturalen erabilera arduratsua sustatu nahi duten ekintzak, berrerabiltzea, birziklatzea eta beste balorizazio erak eta hondakinen kudeaketa sustatzea, erosketa arduratsua eta iraunkorrak ez diren kontsumo ohiturak sustatzea, besteren artean.
- 3. Erronka. Hiri baratzak campusetan. Unibertsitate baratzak sortzea eta erabiltzea xede duten ekintzak. Baratz horiek hezkuntza bitarteko eta iraunkortasunaren aldeko aldaketak sustatzen dituzten hezkuntza-prozesuak bideratzeko guneak izango dira.
- 4. Erronka. Mugikortasuna eta Campusetako Hirigintza Plangintza. Garraio publikoa edo karbonorik gabeko garraioa (bizikleta) sustatzea, espazioaren banaketa hobetzea eta campusetako jardueren banaketa orekatua bermatzea eta campusetako bizi kalitatea areagotzea xede duten ekintzak, besteren artean.
- 5. Erronka. Unibertsitate Osasuntsua. Elikadura eta bizi ohitura osasuntsua sustatzea, elikadura burujabetza eta segurtasuna babestea eta ingurune osasuntsuak eta lan ingurugiro bideratzaileak sortzea xede duten ekintzak, besteren artean.
- 6. Erronka. Kultura eta unibertsitate komunitate iraunkorra. Unibertsitate komunitateak iraunkortasunari dagokionez duen hautematearen ezagutzan sakontzea, ingurumen arloko boluntariora sustatzea eta bere aplikazioak aztertzea eta iraunkortasuna bideratzeko eta nortasunaren osagai gisa (kultura ondarea eta kultura sortzailea) kulturak duen papera ustiatzea xede duten ekintzak, besteren artean.
- 7. Erronka. Eraldatzea sustatzeko hezkuntza. Hiritartasun kritiko, arduratsu eta inplikatuak garatzea eta egungo errealitatea eraldatzeko xedearekin elkartasuna eta aniztasuna, barneratzea, generoen arteko berdintasuna eta kulturartekotasuna sustatzea xede duten ekintzak, besteren artean.
- 8. Erronka. Beste erronka batzuk.

Ia erronka guztiei (salbuespen bakarra, 4. Erronka: mugikortasuna eta campusetako hirigintza plangintza) heltzen zieten proiektuetarako eskariak jaso ziren.

Berrikuntza, Gizarte Konpromiso eta Kultur Ekintzako Errektoreordearen 2017ko urriaren 13ko Ebazpenaren bitartez, 18 proiektu lagundu ziren diruz. Aipatu



proiektuetan, 178 pertsonak parte hartu dute (unibertsitate komunitateko kideak eta laguntzaileak). 5. Taulak proiektuetako izenburua, unibertsitate ikastegia eta koordinatzaileak zerrendatzen ditu.


**5. Taula: 2017/18 ikasturtean garatzeko xedearekin 1. Deialdian onartutako Campus Bizia Lab Proiektuen zerrenda, unibertsitate ikastegia eta koordinatzailea**

CAMPUS BIZIA LAB 2017/18			
	Proiektuaren izenburua	Ikastegia	Koordinatzailea
1	Diziplina anitzeko irakaskuntza praktika kolaboratiboak egitea Arabako Campuseko Baratz Ekologikoan (ACBE)	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	Aritz Ruiz Gonzalez
2	Baliabideen probetxamendua: erreaktibo kimikoen erosketa arduratsua eta iraunkorra	Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola	Gorka Gallastegui Ruiz de Gordo
3	UPV/EHUren Ingurumen Arrasto Korporatiboari loturiko gizarte eraginak aztertzea eta modelizazioa egitea SOCA, openLCA eta Ecoinvent erabiliz	Ekonomia eta Enpresa Fakultatean	Artizar Erasquin Tolosa
4	Elikagaien eskaintza eta kontsumoa UPV/EHU: ingurune osasuntsu bat sustatzea	Farmazia Fakultatea	Marta Arroyo Izaga
5	UPV/EHUren ingurumen eraginen modelizazioa egitea openLCA eta Ecoinvent erabiliz, Ingurumen Arrasto Korporatiboa kalkulatzeko	Bilboko Ingeniaritza Eskola	Gorka Bueno Mendieta
6	Baliabideen erabileraren eta isurketen inbentarioa egitea UPV/EHUren Ingurumen Arrasto Korporatiboa kalkulatzeko	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	Iñigo Leon Cascante
7	Gipuzkoako Campusean hiri baratz bat garatzeko proiektua: curriculum eta komunitate iraunkortasunerako erreminta	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	Oihana Barrutia Sarasua
8	Laborategiko substantzia eta materialen kudeaketa arduratsua Bizkaiko Campusean sustatzeko estrategiak.	Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Sonia Arrasate Gil
9	Bizkaiko Campuseko hondakinak minimizatzeko estrategiak	Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Ibone Ametzaga Arregi
10	Diziplina arteko komunitate bat sortzea, energia trantsizioa abiarazteko Bilboko Hezkuntza Fakultatean	Bilboko Hezkuntza Fakultatea	Joserra Diez Lopez
11	Energia berriztagarrien erabilera Unibertsitateko eraikin ezberdinetan	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	Maria Gonzalez Alriols
12	Gizarte Gaitasunen garapena Erabaki Iraunkorrak hartzerakoan: Ekonomia eta Enpresarako eta Gizarte Hezkuntzarako simulagailu bat	Ekonomia eta Enpresa Fakultatean	Noemi Peña Miguel
13	Unibertsitatea, gizarte eraldatzeko eragilea. Ikasleak, irakasleak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzeko esfortzuan inplikatzeko ekintzak	Ekonomia eta Enpresa Fakultatean	Marta Barandiaran Galdos
14	Hozketa kriogenikoa aplikatzea olio	Bilboko	Luis Norberto



	mineral konbentzionalen emultsioak ordezkatzeko	Ingeniaritza Eskola	Lopez de Lacalle Marcaida
15	Ingurumen faktoreak neurtzea open hardware erabiliz	Bilboko Ingeniaritza Eskola	Javier Bilbao Landatxe
16	Zuntz naturalen balorazio iraunkorra unibertsitate campusean erabilgarriak izan daitezkeen osagaiak diseinatu eta fabrikatzeko	Bilboko Ingeniaritza Eskola	Alberto Lopez Arraiza
17	Kultura baliabideen eta ohituren iraunkortasuna	Ekonomia eta Enpresa Fakultatean	Victoria Ateca Amestoy
18	Aerosorgailu eolikoak optimizatzea: potentzia hobetzeko proposamenak eta eraikuntza material alternatiboen inguruko proposamenak	Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola	Ana Boyano Murillo

9. Irudiak parte-hartzaileen banaketa irudikatzen du talde eta generoen arabera. Nabarmentzekoa da programan parte hartu duten JAP langileen proportzioaren hazkundera, esperientzia pilotuarekin alderatuz.



**9. irudia: Campus Bizia Lab programako 1. Deialdian parte hartu zutenen kopurua, unibertsitate komunitatearen taldeen arabera (ezkerra) eta generoka (eskuina)**

2017/18 ikasturteko lehen lauhilekoan zehar, esperientziak trukatzeko bi koordinazio bilera birtual antolatu dira. Aipatuetan, campusen barruko eta campusen arteko sinergia ugari sortu dira.

Azkenik, Campus Bizia Lab Programako proiektuen emaitzak zabaltzeko xedearekin, espazio bana esleitu zaio proiektu bakoitzari Iraunkortasuneko Zuzendaritzaren webgunean.



### 3.3. Garapenerako Unibertsitate Lankidetzak bultzatzea.

Zuzendaritza honek unibertsitate komunitatearen parte-hartzea lankidetzako proiektuetan sustatzea eta babestea eta garapen maila baxua duten herritarren bizi kalitatea eta baldintzak hobetzea eta gizarte eraldatzeko ekintzekiko konpromisoa eta kontzientzia kritikoa sortzea xede duen deialdi bat kudeatzen du urtero. Horretarako, laguntzak eskaintzen dira UPV/EHUko unibertsitate komunitateko kideek jarraian jasotzen diren arloetan garatzen dituzten GUL proiektuak osotasunean edo partzialki finantzatzeko: irakaskuntza eta heziketa; garapenera aplikatutako ikerketa; informazio, ezagutza eta teknologiaren transferentzia; garapen bidean dauden herrialdeetako unibertsitateen sendotze instituzionala; eta garapenerako hezkuntza.

2017. urtean, GUL Proiektuetarako Laguntzetarako Deialdia egin zen, Berrikuntza, Gizarte Konpromiso eta Kultur Ekintzako Errektoreordearen 2017ko otsailaren 22ko Ebazpenaren bitartez. Azken urteotan egin duen bezala, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Bulegoak aholkularitza eta laguntza teknikoak eskaini du proiektuetarako eskariak egiteko eta horien jarraipenerako. Aholkularitza hori behar-beharrezkoa da Garapenerako Lankidetzak Proiektuak zehazten eskarmentu txikia duten IRI eta JAP langileek beren eskariak aurkez ditzaten deialdi honetara eta beste deialdi batzuetara.

Laguntzetarako deialdi honi esker, 2017n hiru proiektu jarri ziren martxan El Salvador, Kolonbia eta Argentinan. 6. Taulak proiektuak, beren arduradunak eta bakoitzak jaso dituen zenbatekoa jasotzen ditu.

**6. Taula: GUL Proiektuetarako 2017 Deialdiaren esleipena: izenburua, arduraduna eta finantzazioa**

Proiektuaren izenburua	Arduraduna	Jasotako finantzazioa (€)
Unibertsitate lankidetzak sendotzea El Salvadorreko Ingeniaritza eta Arkitektura Fakultatearen (FIA-UES) eta UPV/EHUren artean, zientzia eta teknologia ezagutzak trukatzeko (2. Fasea)	Aitor Gomez Arribillaga <i>Mugarik Gabeko Ingeniaritza (MGI)</i>	13.000
Buenos Airesko metropoli eremuan gizarte eta hezkuntza kalteberatasuneko egoeran dauden ikasleen irakaskuntza ertaineko irakasleak hezteko proposamena, alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoa eta indarkeriarekiko esposizioa landu dezaten	Patricia Insua Cerretani <i>Psikologia Fakultatea</i>	6.220
Aurre egitea, barkamena, adiskidetzak eta beste erronka batzuk Kolonbiako gatazka armatuaren biktima izan diren emakumezkoentzat	Dario Paez Rovira <i>Psikologia Fakultatea</i>	13.000

Era berean, 2017. urtean zehar 2016ko deialdian diruz lagunduriko proiektuen jarraipena egin da. 7. Taulak proiektuen izenburuak, arduradunak eta jaso zituzten zenbatekoak zerrendatzen ditu.



**7. Taula: GUL Proiektuetarako 2016 Deialdiaren esleipena: izenburua, arduraduna eta finantzazioa**

Proiektuaren izenburua	Arduraduna	Jasotako finantzazioa (€)
Nikaraguako landa komunitetako familiek eraiki dituzten hobetutako biomasa sutegien teknika eta gizarte mailako ebaluazioa	Constanza Lobo Igartua <i>Mugarik Gabeko Ingeniaritza (MGI)</i>	8.553
Garapen Iraunkorreko Helburuen exekuzioan komunitate txiroak ahalduzko ikus-entzunezko erremintak. UPV/EHUren eta Sao Paulo Unibertsitatearen arteko lankidetzara Sao Remo favelaren garapen iraunkorrerako	Irati Agirreazkuenaga Onaindia <i>Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea</i>	10.000
Sierra Prietako komunitatearen garapenerako ezagupen, ahalduzko eta parte-hartzea sustatzeko proiektua	Rakel Oion Encina <i>Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea</i>	4.670
Alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoa eta indarkeriarekiko esposizioa Buenos Airesko metropoli eremuan gizarte eta hezkuntza kalteberatasuneko egoeran dauden nerabetan: Irakasleentzako erremintak	Patricia Insua Cerretani <i>Psikologia Fakultatea</i>	7.000

Horrez gain, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzara Bulegoak aholkularitza eskaintzen dio unibertsitate komunitateari, garapenerako lankidetzari dagokionez, proposamenak bilatu eta presta ditzaten etorkizuneko deialdietarako. 8. Taulak Bulegoak 2017. urtean kudeatu zituen proiektuak zerrendatzen ditu, bai eta deialdiak, arduradunak eta emandako laguntzak ere.

**8. Taula: 2016/17 ikasturtean zehar kudeatutako GUL proiektuak**

Deialdia	Proiektuaren izenburua	Arduraduna	Jasotako finantzazioa (€)
FOCAD	Energia eredu berri baterako lankidetzara: zor ekologikotik bizitza zintzorainoko trantsizio demokratikoa: Tradebu	Iñaki Barcena <i>Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea</i>	174.845,03
Espainia eta Brasilen arteko mugikortasun programa	Brasiliako Unibertsitatea	Gustavo Fernandez <i>Zientzia eta Teknologia Fakultatea</i>	10.000
Espainia eta Brasilen arteko mugikortasun programa	Universidade do Estado do Rio de Janeiro	Oscar Alvarez Gila <i>Letren Fakultatea</i>	19.440



### **3.4. Iraunkortasunaren eta sareko parte-hartzearen inguruko prestakuntza osagarria unibertsitate komunitatearen esku uztea**

Hezkuntza curriculumaren bidez iraunkortasunaren inguruan ikasleei ematen zaien prestakuntza UPV/EHU 2012-2017 Plan Estrategikoaren barruko *Konpromiso Soziala V*. Ardatzeko ekintzarik nagusienetako bat da: "Iraunkortasunerako, berdintasunerako eta garapenerako hezkuntza sustatzea unibertsitate curriculumean txertatuz prestakuntza- eta ikerketa-alderdietan". Horretarako, argi dago ikasleei prestakuntza eskaintzeaz gain aurrerapausoak eman beharko direla ere irakasleekin. Atal honek, 2017. urtean bi talde horiei eskainitako prestakuntza ekintzak deskribatzen ditu.

#### **3.4.1. Ikasleentzako prestakuntza**

##### **3.4.1.1. Ikastegian bertako prestakuntza: Garapenerako Lankidetzari eta Hezkuntzari dagokienez UPV/EHUko ikasleei eskainitako ikastaro monografikoak**

Unibertsitateak, bere xede nagusia heztea duen erakundea den heinean, etorkizuneko belaunaldiak hezi behar ditu gizarteek pairatzen dituzten arazoengatik inguruko eztabaidetan parte har dezaten ekitate, iraunkortasun eta giza eskubideekiko errespetu handiagoak lortzeko helburuarekin. Baldintza hori aintzat hartuta eta UPV/EHUko unibertsitate ikastegi, HEGOA - Nazioarteko Lankidetzari eta Garapenerari Buruzko Ikasketen Institutu eta EAeko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde (GGKE) ezberdinekin batera lan eginaz, 2004. urtetik UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzari Bulegoak Garapen eta Lankidetzari buruzko ikastaro monografikoak antolatzen ditu urtero. 2004ko hastapenetatik, 95 ikastaro monografiko eman dira, UPV/EHUko hiru campusetako ikastegi ezberdinetan.

Ikastaro horietan, UPV/EHUko ikasleek gai ezberdin ugari sakontzeko aukera dute, ondokoetan hain zuzen ere: hezkuntzatik ingurumeneraino; elikadura segurtasunetik genero ikuspegiraino; parte-hartze demokratikotik eta pertsonen segurtasun politikotik garapenaren teknologia alderdietaraino; osasunaren alderdi ezberdinetatik giza eskubideei loturiko arazoetaraino; desiragarria den hazkunde ekonomikoaren baldintzetatik finantzen lurrunkortasunak eta merkatuen globalizazioak dakartzaten arazoetaraino.

Ikastaro monografiko bakoitzak 50 orduko iraupena du eta, ondorioz, Gradu ikasketetako 2 hautazko kreditu aitortzen dira. 50 ordu horietatik, 20 ordu ikasgelan bertan emandako edukiei dagozkie eta beste 30ak hitzaldietara, mintegietara eta/edo lanak eginaz beteko dira.

Inplikaturiko irakasle gehienak UPV/EHUko irakasleak dira, bai eta Euskadiko GGKEetako langileak eta UPV/EHUrekin lankidetzari hitzarmenak sinatu dituzten Unibertsitate Elkarteak ere.

Ikastaro monografikoa egitea ezinbesteko baldintza da Garapenerako Lankidetzari Praktikuma edo Gradu Amaierako Lana egiteko. Eta oso gomendagarria da ere edozein boluntariotza jarduerara gauzatu ahal izateko.





2016/2017 ikasturte akademikoan 9 ikastaro monografiko eman dira guztira. Aipatuetan, 175 ikaslek eman dute beren izena, horietako % 75a emakumezkoak zirelarik. Arabako Campusak hiru ikastaro hartu zituen; Bizkaiko Campusak bi eta Gipuzkoakoak lau. 9. Taulak mintegietako izenburuak, aipatuak hartu zituzten unibertsitate ikastegiak, datak eta ikasleen kopurua zehazten ditu.

**9. taula: 2016/17 ikasturtean emandako garapenerako lankidetzako ikastaro monografikoak, hartu dituzten campusak eta ikastegiak eta parte-hartzaileak, generoaren arabera.**

Ikastaroaren izenburua	Ikastegia	Datak	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Garapen eta lankidetzaren solidarioa	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea (Arabako egoitza)	2016/09/26 2016/11/28	18	16	2
Garapenerako lankidetzaren solidarioa	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	2017/03/25 2017/04/11	9	6	3
Garapenerako lankidetzaren nutrizioaren eta osasunaren arloan	Farmazia Fakultatea	2017/02/02 2017/02/12	29	25	4
Giza Garapenerako Garapen, Lankidetzaren eta Teknologia buruzko Mintegia	Bilboko Ingeniaritza Eskola	2016/09/30 - 2016/12/11	19	11	8
Garapen eta Lankidetzaren Ekonomia Globalean egun dituzten erronkak	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	2017/02/17 - 2017/03/17	22	11	11
Garapenerako lankidetzaren solidarioa	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	2016/11/07 2016/11/30	22	20	2
Giza Garapenerako Lankidetzaren eta Teknologia. Sarrera	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	2017/02/03 2017/03/04	9	5	4
Hezkuntza eta lankidetzaren garapenean kurtso monografikoa	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	2017/03/08 2017/03/04	29	5	4
Lankidetzaren eta Arkitektura	Arkitektura goimailako Eskola Teknikoa	2017/04/10 2017/04/28	18	16	2
			175	131	44

2016/17 ikasturtean, ondoko GGKEk parte hartu dute, besteren artean: Mugarik Gabeko Ekonomistak, Haurralde Fundazioa, Bidez Bidez, Coopera, RCD, Medicus Mundi-Gipuzkoa edo Mugarik Gabeko Ingeniaritza (MGI).

Ikastaroan parte hartu eta gogobetetasun inkesta bete zuten ikasleen (> % 50) balorazioa oso positiboa da.



### 3.4.1.2. Online prestakuntza


2017ko bigarren seihilekoan, bi online ikastaro diseinatu dira. Helburua da graduko ikasleei eskaintzea 2018. urtean, egelapi plataforma birtualaren bidez. UPV/EHUko Graduko ikasleei zuzenduta daude biak eta euskaraz eta gaztelera emango dira. 37,5 orduko iraupena izango dute eta, ondorioz, Graduko ikasketetako 1,5 hautazko kredituen truke baliozkotu daitezke.



#### Online ikastaroa: "Iraunkortasunaren erronkari helduko al diozu?"

Hartzaileak: iraukortasunari loturiko alderdiak, erronka nagusiak eta azken hauei hezkuntzatik eta gizarte konpromisotik heltzeko moduak ezagutu nahi dituzten graduko ikasleak.

Edukiak: 1) Iraunkortasunari buruzko gure pentsamoldea birplanteatzea; 2) tokiko mailako iraukortasuna; 3) Eskualde mailako iraukortasuna; 4) Ekimenen eta kontzeptuen arteko harremana.



#### Online ikastaroa: "Garapenerako unibertsitate lankidetzaz"


Hartzaileak: Garapenerako Unibertsitate Lankidetzan interesa duten graduko ikasleak.

Edukiak: 1) Garapenerako Lankidetzaz: iragana, oraina eta etorkizuna; 2) Garapenerako Lankidetzaren eragileak, instrumentuak eta tipologiak; 3) Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaz (GUL).

### 3.4.2. Irakasleentzako prestakuntza eta iraunkortasuna hezkuntza curriculumean barneratzeko berrikuntza proiektuak

Jarduera ezberdinak antolatu dira irakasleek iraunkortasunaren inguruko gaitasunak sar ditzaten beren irakasgai eta hezkuntza curriculumetan, prestakuntzaren eta esperientzien trukatzearen bitartez.

2017ko ekainean, "Iraunkortasuna eta Ingeniaritza. Nola txerta dezakegu gaitasun hau irakaslanean?" izeneko bi tailer antolatu ziren, alderdi hori Ingeniaritzaren arloan lantzeko. Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak antolatzen duen Unibertsitate Irakasleen Irakas-prestakuntza Programaren (UIPRE) baitan kokatzen diren tailer horiek ekainaren 14an egin ziren Bilboko Ingeniaritza Eskolan; eta 2017ko ekainaren 16an Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolan. 36 pertsonak parte hartu zuten: 21 emakumezko eta 15 gizonezko. 10. Irudiak parte hartzaileen kopurua adierazten du, generoen eta ikastegiaren arabera banatuta. Parte-hartzaile gehienak tailerrak hartu zituzten ikastegietara atxikitako irakasleak izan ziren: % 59a Bilboko Ingeniaritza Eskolako eta % 32a Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako. Parte-hartzaileek egin zuten tailerraren balorazioa oso positiboa izan zen: 6tik 5, batez beste.



**10. Irudia: "Iraunkortasuna eta Ingeniaritza" tailerrean parte hartu dutenen kopurua, generoaren (ezkerra) eta unibertsitate ikastegiaren arabera (eskuina)**

Ildo horretan gauzaturiko beste ekintzetako batean, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuarekin batera oraingoan ere, Iraunkortasunerako Hezkuntza gradu eta graduondoko curriculumean txertatzeko berrikuntza proiektuen abiaraztea sustatzea izan zen.

2017/18ko Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuen (HBP) Deialdian ondoko lehenetsuneko ildoak ezarri zen, besteren artean: Iraunkortasunerako Hezkuntza, Berrikuntza Proiektuaren ardatz. Azken bi deialdietan 5 eskari jaso eta diruz lagundu dira ildo horren barruan. 10. Taulak proiektuen izenburua, bultzatu dituzten ikastegiak eta beren koordinatzaileak zerrendatzen ditu.

**10. Taula: Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuak Iraunkortasunerako Hezkuntzaren arloan: izenburua, ikastegia eta koordinatzailea**

Berrikuntzarako Proiektuaren izenburua	Ikastegia	Koordinatzailea
Enpresa baterako berrikuntzarako proiektu proposamen bat egitea, bere merkatu	Bilboko Ingeniaritza Eskola	Begoña Echevarria



beharren eta funtsezko gaitasunen ondoriozko I+G+B estrategietan oinarrituta		Robledo
Lankidetzta: eskola inklusiboa eta gizarte-eragileak	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	M <sup>a</sup> Angeles Soroa Udabe
Rol jokoetan oinarritutako ikaskuntza: Klima Aldaketaren Ekonomiarako aplikazio bat	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	Marta Escapa Garcia
Gaming-aren erabilera ikerketan oinarrituriko ikaskuntzako ingurune batean, ekonomia ekologikoa irakasteko (ABIGAME)	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	David Hoyos Ramos
Unibertsitate gizarte konpromisoa sustatzeko irakaskuntza jarduerak: elkartasuna eta iraunkortasuna	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	Saioa Telletxea Artzamendi

### 3.4.3. Iraunkortasunerako Hezkuntzako sareetan parte-hartzea

Iraunkortasuna curriculumean txertatzeko Iraunkortasunerako Hezkuntzako (GIH) berrikuntza sareetan parte hartu beharra dago, trukatzeko horrek iraunkortasuna hezkuntza curriculumean sartzeko ahaleginaren ikuspegi aberasgarriago bat eskaintzen baitu.

UPV/EHUK ondoko GIH sareetan parte hartzen du: Copernicus Alliance, CRUE-Iraunkortasuna, Ikaskuntza-zerbitzuko Espainiako unibertsitateen sarea eta Unibertsitate 9 Taldea.

- Copernicus Alliance UPV/EHUK aktiboki parte hartzen du Copernicus Alliance izeneko garapen iraunkorrerako goi-mailako hezkuntzako erakundearen Europako sarean. Sarea 1993. urtean jaio zen garapen iraunkorra sustatzeko xedearekin; zehatzago esanda, iraunkortasuna Goi-mailako Hezkuntzako Europako Espazioan sustatzeko eta ikertzeko xedearekin.

#### UE4SD Proiektua - University Educators for Sustainable Development

Copernicus sareak garapen iraunkorraren aldeko unibertsitate hezitzaileen proiektua sustatu zuen, sare akademikoak sortzea xede zuen Europako Batzordeko Lifelong Learning Programme programaren baitan. Programa 2013 eta 2016 bitartean garatu zen. Koordinatzailea Gloucestershireko Unibertsitatea (Erresuma Batua) izan zen eta Europako 52 unibertsitatek parte hartu zuten, UPV/EHU tartean.

Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren (GIH) eta Goi-mailako Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko prozesuen arteko harremanean jarri zuen bere arreta proiektuak. Xede nagusia zen unibertsitateentzako gida estrategiko bat sortzea GIH berrikuntza arlo akademikoan eta curriculumean bultzatzeko unibertsitateko hezitzaileek GHI gaitasunak garatzeko dituzten aukerak identifikatzearen eta sortzearen bitartez.

Proiektuaren hirugarren eta azken fasean "Academy" izeneko esperientzia gauzatu zen: xedea, garapen profesionalerako ekimenak GIHn sortzea eta ebaluatzea. UPV/EHU aukeratutako unibertsitateetako bat izan zen eta bere "Academy" esperientzia Campus Bizia Lab Programaren sorreran gauzatu da.



Academy esperientzian parte hartu zuten Espainiako lau unibertsitateek (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, Gironako Unibertsitatea, Granadako Unibertsitatea eta UPV/EHU) proiektu bat garatu zuten 2017n, Erasmus Proiektuko koordinatzaile Daniella Tilburyren (Gibraltarreko Unibertsitatea) eta Javier Benayasen (Madrileko Unibertsitate Autonomoa) zuzendaritzapean. Academy Latinoamerica 2017 (RISU3) izeneko, Kolonbiako lau unibertsitateen eta Nazio Batuek ingurumenaren arloan Latinoamerikan dituzten ordezkari ezberdinen parte-hartzea izan zuen. 2017ko urriaren 17an eta 18an topaketa bat egin zen Bogotan (Kolonbian). Proiektu berri honetako unibertsitate guztiek bertan parte hartu zuten.

- CRUE Iraunkortasuna

Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziaren (CRUE) arloko batzordea 2009n sortu zen, Espainiako unibertsitate ezberdinen ekimenez. Xedea zen Espainiako unibertsitateek ingurumen arloan zuten esperientzia, ingurumena unibertsitate curriculumean txertatzeko egondako aurrerapenak eta arriskuak prebenitzeko egindako lanak biltzea eta, aldi berean, lankidetzaz sustatzea aipatu arloetan esperientziak partekatuz eta jardunbide egokiak sustatuz.

Bederatzi lantalde ditu eta Iraunkortasuneko Zuzendaritzak ondokoetan parte hartzen du aktiboki: "Iraunkortasuna curriculumean txertatzea" eta "Unibertsitateak eta Mugikortasun Iraunkorra".

Lehen taldeak Iraunkortasuna Curriculumean Txertatzeari buruzko Irakasleentzako Autodiagnostiko Galdetegia garatu du (APROSOS).

- Ikaskuntza-zerbitzuko Espainiako unibertsitateen sarea (ApS-U)

Sare honen xedea da egiazko lankidetzaz sustatzea irakaskuntzaren, ikerketaren eta gizarte ekintzaren arloan, sarea osatzen duten kideen eta beren erakundeen arteko unibertsitate ikaskuntza-zerbitzuan oinarrituta.

- Unibertsitate 9 Taldea

1997ko maiatzaren 16an sinaturiko hitzarmenak sortu zuen taldea. G9 taldeko unibertsitateek, estatutuen arabera beren autonomia erkidegoan unibertsitate publiko bakarra izan beharko dutenak, gizarte xede berbera dute: taldeko unibertsitateen arteko lankidetzaz sustatzea, bai irakaskuntzari eta ikerketari dagokienez bai kudeaketa eta zerbitzuei dagokienez ere.

Iraunkortasuneko Zuzendaritzak aktiboki parte hartzen du garapenerako unibertsitate lankidetzako arloko batzordean.



### **3.5. Ikasleen parte-hartzea sustatzea elkartasunezko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan**

UPV/EHUK ikaslea osotasunean (eta ez akademikoki bakarrik) hezteko konpromiso garrantzitsua hartu du. Osoko heziketa horri esker, etorkizuneko belaunaldiek gizarteek pairatzen dituzten arazoen inguruko eztabaidetan parte hartuko dute, iraunkortasun eta giza eskubideekiko errespetu handiagoak lortzeko helburuarekin. Helburu hori lortu ahal izateko, ezbairik gabe, funtsezkoa izango da gizarte demokratiko eta irekien ezaugarri diren balioen inguruan hausnartzea eta aipatuak gauzatzea ahalbidetuko duten espazioak sortzea unibertsitatearen egunerokotasunean. Ondoko balioak alegia: bakea, ekitatea, barneratzea eta iraunkortasuna. Honela, 2017. urtean zehar jarraian deskribatzen diren jarduerak sustatzen jarraitu dugu.

#### **3.5.1. Garapenerako Lankidetzaren inguruko Lan Praktikak eta Gradu Amaierako Lanak egiteko Programa**

2003ko maiatzaren 13an UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartu zuen Garapenerako Lankidetzaren inguruko Lan Praktikak eta Gradu Amaierako lanak egiteko Programa delakoari esker, ikasleek derrigorrezko beren lan praktikak eta GrALak lankidetzaren erakunde ezberdinek garapen bidean dauden herrialdetan ezarrita dituzten proiektuetan egin ditzakete, esperientzia hori beren heziketa akademiko-praktikoan txertatuz.

Programa hori 2003/2004 ikasturtean zehar abiarazteko zioa Unibertsitatearen xedeetako bat da: munduan dauden desberdintasunen eta desoreken kontziente diren eta gizartearen aurrerapena oztopatzen duten arazoen inguruko eztabaidetan parte hartzeko gai diren profesionalak heztea. Era berean, mota honetako praktika eta GrALen eskaintza erakundetu du, bere iraunkortasuna eta hezkuntza eragina bermatuz. Programa ondoko hiru printzipioetan oinarritzen da:

- Garapenerako proiektuetan egindako praktiken prestakuntza osagai garrantzitsua aitortzen du. Beren prestaketa akademikoa eta profesionala hobetzeko aukera ematen die ikasleei, espazio berriak eta abilezia ezberdinak garatzeko aukerak emango dizkieten esperientzietan parte hartuko baitute.
- Garapenerako lankidetzarekiko motibazio handia duten ikasleen eskaria asetzen du: gurea baino arazo handiagoak eta bitarteko eskasagoak eta desberdintasun esponentzialak dituzten gizartei laguntzeko nahiak praktika interesgarriak eta aberasgarriak egitera bultzatuko dio ikasleari. Bai alderdi pertsonaletik, bai arlo profesionalari dagokionez ere.
- UPV/EHUren eta garapenerako lankidetzako erakundearen arteko lankidetzaren sustatzen du, ikasleen praktiken egiazko exekuzioa zein sentsibilizazio jarduerak unibertsitate komunitatean izango duten eragina ziurtatzeko.

Praktiken eta GrALen programak laguntza ekonomikoak eskaintzen ditu ere, parte hartuko duen ikaslearen bidaiari eta aseguruari loturiko gastuen ordainketa arintzeko. 750 € jasotzen ditu ikasle bakoitzak. Laguntza horiek emateko funtsa ondokoetan oinarritzen da: Euskal Fondoaren ekarpenak eta UPV/EHUko ikasleek beren matrikulen bidez egiten dituzten ekarpenak; hau da, ikasleen % 0,7 Funtsa.



Honela, bi modalitate ezberdinetan sailkatu diren ondoko jarduerak babestea da helburua:


- 1. modalitatea: Garapenerako lankidetzarako unibertsitate praktikak garapen bidean dauden herrialdetan, ikasleak bere prestakuntza akademikoan lorturiko osagai teoriko eta praktikoak aplikatu dituzten, gizarte errealitatea ebaluatu eta gizarte aldatzeko estrategiak planifikatzeko bere gaitasunak indar dituzten eta, aldi berean, gizarte arazoaren prebentzioan, arintzean edo konpontzean lagun dezaten bere prestakuntzako eginkizun profesional ezberdinetan oinarrituta.
- 2. Modalitatea: Gradu amaierako lanak garapeneraren eta/edo lankidetzaren arloan. Honela, UPV/EHUko ikasleak graduan lorturiko ezagutza guztiak GGKEk eta lankidetzako erakundeek planteatu dituzten "arazo teknikoak" konpontzeko aplikatuko ditu, bere GrAL eginaz.

Ondokoak dira programan inplikaturiko eragileak:

- GGKEk edo lankidetzako erakundeak: unibertsitate ikasleak hartuko dituzten garapenerako lankidetzako proiektuak proposatzen dituzte.
- Unibertsitate ikastegiak: GGKEek tokian bertan garatuko dituzten garapenerako lankidetzako proiektuen baitan garatuko diren derrigorrezko praktikak edo GrALak sartu dituzte beren irakaskuntza programan.
- Ikasleak: bere prestakuntza profesionalaren zati bat garapenerako lankidetzako proiektu batean parte hartzea eskatuko duten lan-praktiken edo GrALaren bitartez jasoko dute.
- Babesleak: Euskal Fonda, esaterako. Bilboko, Donostiako eta Vitoria-Gasteizko udalak bezalako erakundeek ekarpenen bitartez, finantza bitartekoak eskaintzen dituzten ikaslearen bidaiaren zati bat ordaindu ahal izateko.
- UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzako Bulegoa: bitartekari lanak egiten dituzten alde guztien artean eta kudeaketa, prestakuntza eta ebaluazio jarduerak osagarri guztiak gauzatzen dituzten Programari jarraitutasuna emateko.

Praktiken eta GrALen Programa honen eragin positiboaren inguruko adierazleak ditugu, aipatuen parte hartu duten ikaslearen sentsibilizazioari eta elkartzaren portaeren sustatzeari dagokionez. Azpimarratzekoa da ere UPV/EHUko ikasleek geroz eta interes handiagoa agertzen dutela mota honetako praktiken inguruan. Bere hastapenetatik 2016/17 ikasturtean gauzatu den 14. edizioa arte, UPV/EHUko 16 unibertsitate ikastegitako 1.000 ikasle baino gehiagok parte hartu dute programan. Ikasle horiek Latinoamerikako edo Afrikako 23 herrialdetan egon dira beren praktikak 30 bat lankidetzako erakunde batera finantzatu dituzten garapenerako proiektuetan egiten.

2016/17 ikasturteko 14. edizioan, hain zuzen ere, UPV/EHUko 10 ikastegitako 78 ikasleek parte hartu dute programan. Ikasle horiek Latinoamerikako eta Afrikako 13 herrialdetan egon dira, beren praktikak edo GrAL garapenerako lankidetzako proiektuen baitan egiteko. 11. Irudiak eta 11. eta 12. Taulek generoaren arabera, jomuga izan den herrialdea eta ikastegia (Eskola edo Fakultatea) zerrendatzen dute, hurrenez hurren. Emakumezkoek programan duten parte-hartzea nabarmendu beharra dago, parte hartu duten ikasle guztien hiru laurdenak gainditu baitituzte (% 78,20).



**11. Irudia: 2017/17 ikasturtean beren praktikak eta GrAL garapenerako lankidetzaren proiektuen batean egin dituzten ikasle guztiak, generoaren arabera.**

**11. Taula: Jomuga izan diren herrialdeak eta herrialde bakoitzak Praktikak eta GrAL garapenerako lankidetzaren proiektuetan egiteko 2016/17 programaren bitartez jaso dituen ikasleen kopurua.**

Jomuga izan den herrialdea	Ikasleak	Ikasleen %
El Salvador	15	19,23
Nikaragua	12	15,39
Argentina	11	14,10
Guatemala	9	11,55
Peru	8	10,26
Sahara	6	7,69
Bolivia	5	6,41
Dominikar Errep.	4	5,13
Ekuador	2	2,56
Etiopia	2	2,56
Puerto Rico	2	2,56
Txile	1	1,28
Kongoko E.D.	1	1,28

**12. Taula: Praktikak eta GrAL garapenerako lankidetzaren proiektuetan egiteko 2016/17 programan parte hartu duten ikasleen banaketa, lankidetzako erakundearen arabera**

Lankidetzaren erakundea	Ikasleak
Euskal Fundazioa	29
Haurralde	12
Getxo pro-Sahara	6
AMS	4
TAU Fundazioa	4



PIES por la Tierra	2
Fundación compromiso Cristiano Bases Mayasa	2
ISF	2
Utopía Fundación Tikal	2
Movimiento sociocultural Trabaja Haití	2
Asociación Civil Maria Montessori	2
Fundación compromiso Cristiano Bases Mayasa	2
NTD Ingredientes	2
Acción Internacional Sanitarios de España	2
Techo	2
Movimiento sociocultural Trabaja Haití	2
Asociación Civil Maria Montessori	2
Coopera	1
Medicus Mundi	1
ADSIS	1
Wildlife Conservation Society	1
CODEINFA	1
Fundación Huésped	1

### 3.5.2. Gaztenpatia programa

Euskal Fondoaren laguntzarekin, 2015/16 ikasturtean Gaztenpatia proiektua martxan jarri zen. Proiektua UPV/EHUK eta Euskal Fondoak azken 10 urte luzetan garatu duten etengabeko lankidetzaren emaitza da eta Unibertsitatearen xedeetako bati erantzuten dio: munduan dauden desberdintasunen eta desoreken kontziente diren eta gizartearen aurrerapena oztopatzen duten arazoaren inguruko eztabaidetan parte hartzeko gai diren profesionalak hezteko. Programa ondoko printzipioetan oinarritzen da:

- Prestakuntza. Garapenerako proiektuetan egindako praktiken prestakuntza osagai garrantzitsua aitortzen du. Beren prestaketa akademikoa eta profesionala hobetzeko aukera ematen die ikasleei, ikaskuntza berriak eta abilezia ezberdinak garatzeko aukerak emango dizkieten esperientzietan parte hartuko baitute.
- Enpatia. Garapenerako lankidetzarekiko motibazio handia eskatzen du ikasleen aldetik: gurea baino arazo handiagoak eta bitarteko eskasagoak dituzten gizartei laguntzeko nahiak praktika interesgarriak eta aberasgarriak egitera bultzatuko dio ikasleari.




- Gazteria. Herrialde ezberdinetako gazteak gizarte erakunde bakoitzean garatuko diren garapenerako lankidetzak proiektuei loturiko ekintza komunitan inplikatzeko dira.
- Komunikazioa. Proiektu honen komunikazioa eta ikusgarritasuna bere funtsezko osagaietako bat da. Honela, ikus-entzunezkoen mundua funtsezkoa da Gaztenpatia programan. Ikaika Mediak, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Bulegoak, parte hartu duen ikasleek eta bere tutoretza daramaten pertsonen komunikazio hori "bizirik" mantentzeko ardura hartzen dute.

Proiektu honen II. Edizioa abiatu zenez, 2016/17 ikasturtean UPV/EHUko 8 ikastegitako 28 ikasleek beren praktikak edo GrAL garapenerako lankidetzak proiektu batean egingo dituzte Euskal Fondoak erakundearen proiektuak hartzen dituzten herrialdeetako hirutan (Guatemala, El Salvador eta Nikaragua). 13. Taulak parte hartzaileen kopurua jasotzen du ikastegi, proiektu eta herrialdearen arabera. Generoaren araberako banakapena 12. Irudian jasotzen da. Aipatzekoa da parte hartu duten emakumezkoen portzentajea (% 71.40).

**13. Taula: Parte hartzaileen kopurua ikastegi eta herrialdearen arabera. Gaztenpatia, 2016/17 ikasturtea**

Jomuga izan den herrialdea eta proiektua	Ikastegia	Ikasleak
Gaztenpatia Suchitoto El Salvador	Psikologia Fakultatea	2
	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	2
	Arkitektura Goi-mailako Eskola Teknikoa	2
	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	1
	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	3
Gaztenpatia Morazan (Segundo Montes Unibertsitatea) El Salvador	Arkitektura Goi-mailako Eskola Teknikoa	4
	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	1
Gaztenpatia Alta Vera Paz Guatemala	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	3
	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	1
	Farmazia Fakultatea	3
Gaztenpatia San Carlo Nikaragua	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	1
	Arkitektura Goi-mailako Eskola Teknikoa	2
	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	3



### 12. Irudia: 2016/17 ikasturtean Gaztenpatia programan parte hartu duten ikasleak, generoaren arabera.

2017ko uztailean, gainera, lau irakaslek El Salvador eta Guatemalara bidaiatu zuten: Gipuzkoako Arkitektura Eskolako bi (Enkarni Gomez eta Alex Mitxelena irakasleak, hain zuzen ere) eta Arabako Campuseko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko beste bi (Raul Martinez de Santos Gorostiaga eta Luis Mari Sautu). Bidaia horien xedea izan da UPV/EHUko ikasleen jarduerak gainbegiratzea eta harremana estutzea herrialde horietako ikaskuntza komunitateekin. Irakasle horiek datu ugari bildu dituzte. Aipatu datuak, programa ebaluatzen fasean aztertuko dira.



### 13. Irudia: Gaztenpatia programan parte hartu duten ikasleen argazkiak

Halaber, 2017ko azaroaren 27tik abenduaren 1era arte Kulturarteko II. Gaztenpatia Topaketa antolatu zen. Hiru campusetan garatu zen topaketa horretan, proiektuan parte hartu duten erakundetako eta Erdialdeko Amerikako erakundetako ordezkariak parte hartu zuten.

### 3.5.3. Izapideak, ikasleek boluntarioritza jarduerak erakundetan egin ditzaten; eta hautazko kredituak aitortzea

2012ko maiatzean, Graduko Ikasketetan kredituak transferitu eta onartzeko arautegia onartu zuen UPV/EHUk. Bere 11. artikuluan dio UPV/EHUk matrikulatutako ikasleek elkartasuneko eta lankidetzako jardueretan aritzeagatik kredituak aitortzea eskatu ahal izango dutela. Unibertsitatean ikasten aritu diren bitartean gauzatutako ekintzak izan beharko dutela, eta gehienez ere ikasketan 6 kreditu eskatu ahal izango dituztela horien truke; hiru kreditu emango direla gehienez ikasturteko eta kreditu bat emango dela 30 orduko.



UPV/EHUko Iraunkortasuneko Zuzendaritzak beharrezko izapideak egiten ditu ikasleek erraztasunak izan ditzaten boluntariotza jarduerak egiteko. Izapide horiek ondokoak hartzen dituzte barne:

- 5 Interesa agertu duten ikasleak eta gizarte erakundeak eta boluntariotza GGKEk harremanetan jartzea.
- 6 Boluntariotza egiten hasi aurretik ikasleak jasoko duen prestakuntza diseinatzea eta antolatzea erakunde horiekin batera.
- 7 Etengabeko harremanak mantentzea bere boluntariotza egiteko ikasleek aukeratu dituzten gizarte erakunde eta boluntariotza GGKEekin, bi aldeek bilatzen dituzten helburuak betetzen direla bermatzeko.
- 8 Egindako jarduera baloratzea eta hautazko kredituak aitortzeko egiaztagiriak egitea.

Bere hasieratik, elkartasunezko eta lankidetzako jardueretan aritzeagatik kredituak aitortzea ahalbidetzen duen programa honen baitan UPV/EHUK berrogeita hamar hitzarmen baino gehiago sinatu ditu EAEko gizarte erakunde eta elkarteekin. Halaber, bi programa abiarazteko bi akordio sinatu dira.

- Unikide programa. Unikide programa 2012n jaio zen, UPV/EHUren eta Boluntaren ekimena. Bizkaiko boluntariotza eta gizarte parte-hartzerako agentzia da Bolunta. Akordio horren xedea da UPV/EHUko unibertsitate gizarte parte-hartzea sustatzea Bizkaiko Campusean. Elkarte-ehuna eta boluntariotza UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko ikastegietan sustatzeko Plan bateratu batean gauzatu da.
- Gizalde programa. 2016. urtean, UPV/EHUK lankidetzako programa bat sinatu zuen Gizalde, Gipuzkoako Boluntariotza eta gizarte parte-hartzerako elkartearekin. Xedea da sentsibilizazio ekintzak egitea Gipuzkoako Campuseko unibertsitate ikastegietan. Ekintza horien helburua da parte-hartzearen, elkartasunaren kultura eta balioak aldarrikatzea eta zabaltzea eta boluntariotza sustatzeko etengabeko zerbitzu bat egitea.

Ondokoak dira Unikide eta Gizalde programek partekatzen dituzten jarduketako ildoak:

- Informazioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa;
- Boluntariotza sustatzeko ekintzak;
- UPV/EHU eta gizarte erakundearen arteko lankidetzak;
- Bitarteko teknikoaren mailegua.

2016/17 ikasturtean zehar, hautazko kredituak aitortzeko 216 eskari jaso dira boluntariotza eta lankidetzako jardueretan aritzeagatik. 199 ikasle aurkeztu dituzte eskari horiek: 143 emakumezko eta 56 gizonezko. Eskariaren kopuruaren eta ikasleen kopuruaren arteko alde horren zioa da zenbait ikasle eskari bat baino gehiago aurkeztu dutela. 646 hautazko kreditu aitortu dira; hau da, boluntariotzako ia 20.000 ordu gure ikasleen aldetik.

Elkartasunezko eta lankidetzako jarduerak egin dituzten ikasle gehienak Gizarte Zientzien eta Osasun Zientzien arlokoak dira. 14. Taulak ikasleen kopurua zehazten du, generoaren arabera banatuta.

2. Eranskinak 2016/17 ikasturtean zehar UPV/EHUko ikasleak boluntariotza lanak egiten izan dituzten erakunde eta elkarten zerrenda jasotzen du.



Horrez gain, 2017n zehar beste prestakuntza jarduera batzuk egiteagatik ere kredituak aitortu dira:

- Hiri baratz ekologikoen hastapeneko ikastaroa [Arabako Campuseko unibertsitate baratzean](#). Campus Bizia Lab Proiektuetarako deialdiaren baitan antolatu da.
- Kulturarteko bitartekaritzari eta arrazakeriaren kontrako hezkuntzari buruzko prestakuntza ikastaroa. SOS Arrazakeriak antolatua, Gipuzkoako Campusean egin zen.
- [Ekonomia Ekologikoko IV. Ikastaroa](#). EKOPOL ikertaldeak eta Ekonomia Aplikatua III eta Ekonomia Aplikatua I sailek antolatu dute eta Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Sarriko) egin zen.

**14. Taula: Hautazko kredituak aitortzeko eskarien kopurua, ikastegien eta generoen arabera sailkatuta**

Ikastegia	Emakumezkoa k	Gizonezkoa k
Esperientzia gelak	4	1
Arkitektura GET	1	4
Bilboko Ingeniaritza Eskola	5	6
Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola		2
Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	3	6
Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	26	8
Bilboko Hezkuntza Fakultatea	7	2
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	21	4
Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	2	2
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	8	6
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	8	3
Zuzenbide Fakultatea	12	3
Farmazia Fakultatea	6	
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (HFAF)	12	5
Letren Fakultatea	4	5
Medikuntza eta Odontologia Fakultatea	37	7
Psikologia Fakultatea	34	6
Kimika Fakultatea	2	

**3.5.4. Boluntarioritza autogestionatuko ekimenak sustatzea eta babestea**

UPV/EHUK hautazko kredituak aitortzen dizkie UPV/EHUko ikasleek zuzenean antolatu dituzten elkartasunezko eta lankidetzazko jardueri. Aipatu jarduerak boluntarioritza autogestionatuko ekimenak izena jaso dute. Boluntarioritza

ekimenak graduko ikasketetako hautazko kredituen bidez aitortzen dira ere. Horretarako, ondoko baldintzak bete behar dituzte:

- 9 Unibertsitateko gune batean edo gizarte erakunde batean izatea;
- 10 Irekita izatea eta EHU/UPVko graduren batean matrikulatuta dauden 3 ikasleren ekimena izatea gutxienez (7 ikasle gehienez);
- 11 Izaera solidarioa izatea eta gizarte behar global bat edo talde bereziren baten beharra asetzeko xedea izatea;
- 12 30 orduko dedikazioa eskatzea, gutxienez, parte hartu duen ikasle bakoitzari.

2016/17 ikasturtean boluntariotza autogestionatuko hiru ekimen garatu ziren: 1) Lehen sorospenen inguruko prestakuntza; 2) Alemanian errefuxiatutako pertsonen harrera eta gizarteratzea; eta 3) SOS Arrazakeriaren erakusketarako bisitaldi gidatuak.

### 1. Lehen sorospenen inguruko programa autogestionatua

Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko 4 ikaslek (2 emakumezko, 2 gizonezko) boluntarioki eta solidarioki zehaztu zuten programa eta lehen sorospenen inguruko prestakuntza jardunaldi ezberdinak garatu zituzten. Ondoko gaiak landu zituzten: bihotz-biriketako bizkortzea (BBB); haurren istripuzko intoxikazioak; zauriak, erredurak, makadurak; paziente kritikoen arreta; eta eztarriko trabamenduak, konbultsioak eta sinkopeak.

Lehen sorospenen inguruko 4 jardunaldi egin ziren 2016/17 ikasturtean: Bilboko Hezkuntza Fakultatean bi; eta Zientzia eta Teknologia Fakultatean beste bi. Bilboko Hezkuntza Fakultateko biak 2016ko irailaren 29an eta 2017ko otsailaren 16an egin ziren. 81 ikaslek parte hartu zuten, % 86a emakumezkoak. Zientzia eta Teknologia Fakultateko lehen jardunaldia, ikasleei zuzendua, 2017ko apirilaren 27an egin zen; 37 ikaslek parte hartu zuten, emakumezkoak gehienak (% 70). Bigarrena irakasle-ikertzaileei zuzendua egon zen eta 2017ko maiatzaren 11n egin zen. 12 pertsona bertaratu ziren (4 emakumezko eta 8 gizonezko).



Jardunaldien balorazioen inguruan, esan parte hartu zuten gehienek bere burua egoera kritiko batean laguntzeko gai ikusten dutela eta landutako gaiak beren lanerako edo ikasketetarako oso egokiak izan direla adierazi dutela.

### 2. Alemanian errefuxiatutako pertsonen harrera eta gizarteratzea; programa autogestionatua

2016/17 ikasturtean, lehenengoz, UPV/EHUko Letren Fakultateak bisita bat antolatu du Leipzig hirira (Alemania). Xedea zen Alemanian errefuxiatutako pertsonak hartzeko eta gizarteratzeko lanaren politika, gizarte eta kultura testuingurua ezagutzea.



Letren Fakultateko zazpi emakumezko ikaslek antolatu zuten boluntariora autogestionatuko ekintza hau. Ondoko egitaraua izan zuten Leipzigen: arreta soziokulturaleko eta errefuxiatuei laguntzeko zentroak, Leipzigekeko Migrazio eta Integrazio Unitatea eta hango Gizarteratze Eskolak bisitatu zituzten. Horrez gain, elkarrizketak antolatu zituzten Leipzigekeko Unibertsitateko irakasleekin. Xedea zen gizarteratzearen arloan ezarritako unibertsitate proiektuak ezagutzea.

Bidaiaren harira, ikasleek erakusketa eta ikus-entzunezko erreportaje bana egitea aurreikusten dute. Parte hartu duten ikasleen hitzetan, esperientzia kultura, kulturartekotasuna eta hizkuntzalaritzari dagokienez izan da aberasgarria.

### 3. SOS Arrazakeriaren erakusketarako bisitaldi gidatuen programa autogestionatua. Zuzenbide, Psikologia eta Kriminologia ikaslek egin zituzten bisitaldiak

Unibertsitate komunitateak errefuxiatuen errealitateari buruz duen ezagutza handitzeko helburuarekin, Psikologia, Zuzenbide fakultatetako eta Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako 18 ikaslek "Ongi Etorri Errefuxiatuak" erakusketarako bisitaldi gidatuak antolatu dituzte.

Erakusketa urriaren 24a eta azaroaren 6a bitartean egon zen ikusgai Gipuzkoako Campuseko Ignacio Barriola Zentroan, eta ehunka lagunengana bisita jaso zuen (ikasle, JAP eta IRI). Guztira, Psikologiako (% 53,2), Kriminologiako (% 36,6) eta Zuzenbideko (% 10,2) 316 ikaslek ikusi zuten erakusketa, azaroaren 4an ikusle orokorrenzat antolatu zen bisitaldian zein 2016/17 ikasturtean zehar ikasle eta irakasleentzat antolatu ziren 17 bisitaldietan.

### 3.6. Errefuxiatuei laguntzeari dagokionez UPV/EHUK hartu dituen konpromisoak garatzea

Unibertsitateak, lankidetzaren eragilea den heinean, beharrezko erremintak ditu larrialdi egoeretan bere laguntza eskaini ahal izateko, kaltetutako inguruen berreraikuntzan parte hartzeko eta beren herrialdea uztera behartuta egon diren pertsonen laguntza emateko. Zentzu horretan, unibertsitate komunitatea osatzen duten norbanakoen inplikazioaz gain unibertsitateak, erakunde gisa, bere giza baliabideak, bitartekoak eta ezagutzak kaltetutako pertsonen esku jarri behar ditu beren bizi baldintzak hobetu ahal izateko.

Ondorioz, [2015eko urriaren 1ean Gobernu Kontseiluak aho batez onartu zuen akordioaren](#) bitartez, UPV/EHUK asiloa eta babesa eskatu duten pertsonen eskubideak baldintzarik gabe defendatzeko konpromisoa hartu zuen. Akordio horretan, EAEn errefuxiatutako pertsonak artatzeko ekintza ezberdinak gauzatzeko konpromisoa hartu zuen, lau lan-ildotan oinarritua:

- 1) Errefuxiatuentzako oinarrizko asistentzia prestazionala;
- 2) Unibertsitate eremuan sor daitezkeen premia bereziei aurre egiteko asistentzia bideratzea;
- 3) Gaiaren inguruan sentsibilizazioa edo eztabaida sustatzea; eta
- 4) Laguntza ekonomiko eta materiala.

2017. urtean zehar, ondoko ekintzak gauzatu dira arestian aipaturiko gaiei lotuta.

Errefuxiatuak lehenengo eta bigarren ekinaldian artatzeko ardura duten entitate eta erakundeek bidali dizkiguten asiloa eta babesa eskatu duten pertsonen UPV/EHUrako sartzeko eskariak izapidetu ditugu. Ondokoak dira aipatu erakundeak:

- Comité Español de Ayuda al Refugiado (CEAR)
- Espainiako Gurutze Gorria (CRE)
- Asociación Comisión Católica Española de Migración (ACCEM)


UPV/EHUKo Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak unibertsitatean sartzeko baldintzei edo espedienteak lekuz aldatzeari buruzko laguntza eta informazioa eskaintzen die asiloa eta babesa eskatu duten etorkizuneko unibertsitateko ikasleei, ikasketak atzerrian hasi dituzten pertsonentzako Gradurako sarbidearen bidez UPV/EHUn sartzeko aukera izan dezaten. Sarbide horretaz baliatzeko, etorkizuneko ikasleak lehen mailako 30 ECTS kreditu gaituta izan behar dituzte, gutxienez, jatorrizko bere unibertsitatean. Eta UPV/EHUn egin nahi duen Gradu irakasgaiekin baliokidetzeko gai izan behar dute kreditu horiek. Horretarako, 2016/17 ikasturtean zehar aldizkako bilerak egin ditugu entitate eta erakunde ezberdinekin.

Zehazki, 2016/17 ikasturtean arreta pertsonalizatua eskaini zaie asiloa eskatu duten 9 ikasleri. Horietako 7k gradu ikasketak egiten dituzte eta beste biak graduondokoak. 2 emakumezko eta 7 gizonezko dira. 15. Taulak beren ikastegiak zerrendatzen ditu. 14. Irudiak, beren jatorria. Azpimarratzekoa da ia erdiak Ekonomia eta Enpresa Fakultatean ikasten duela.



**15. Taula: 2016/17 ikasturtean asiloa eta babesa eskatu duten ikasleak eta errefuxiatutako ikasleak, ikastegien arabera**

UPV/EHUko ikastegia	Asiloa eskatu duten edo errefuxiatutako ikasleak
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	4
Bilboko Ingeniaritza Eskola	2
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	1
Zuzenbide Fakultatea	1
Letren Fakultatea	1
<b>Guztira: 9</b>	




**14. Irudia: 2016/17 ikasturtean UPV/EHUn graduoko eta graduondoko ikasketak egin eta asiloa eskatu duten edo errefuxiatu diren ikasleen jatorria**

2017/18 ikasturtean, 13 dira beren graduoko (11) edo graduondoko (2) ikasketak hasi edo jarraitu dituzten asiloa eskatu duten edo errefuxiatutako ikasleak: 2 emakumezko eta 11 gizonezko. 15. Irudiak ikasleak jasotzen ditu, beren jatorriaren arabera; 16. Taulak, aldiz, beren unibertsitate ikastegiak. Azpimarratzekoa da ikasle hauen jatorriaren aniztasuna handia, Siria delarik nagusia. Azpimarratzekoa ere Ingeniaritzaren arloan egon den hazkundera.

**16. Taula: 2017/18 ikasturtean asiloa eta babesa eskatu duten edo errefuxiatu diren ikasleak, ikastegien arabera**

UPV/EHUko ikastegia	Asiloa eskatu duten edo errefuxiatu diren ikasleak
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	4
Bilboko Ingeniaritza Eskola	3
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	1
Zuzenbide Fakultatea	1
Farmazia Fakultatea	1
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	1
Letren Fakultatea	2
<b>Guztira: 13</b>	





### 15. Irudia: 2017/18 ikasturtean UPV/EHUn graduako eta graduondoko ikasketak egin eta asiloa eskatu duten edo errefuxiatu diren ikasleen jatorria

Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen Errektoreordetzak eskaintzen dituen hizkuntza ikastaroen (gaztelera eta euskara) balizko hartzaileen artean, Erasmus programaren bisitariez gain, asiloa eskatu duten eta errefuxiatutako ikasleak sartu dira ere. 2016/17 ikasturtean, asiloa eskatu eta UPV/EHUn matrikula egin duten 4 pertsonen ikastaro horiek egin dituzte.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin harremanetan jarri gara, asiloa eskatu duten eta errefuxiatutako pertsonak unibertsitate tasak ordaintzetik salbuetsita egon daitezzen. 2016/17 eta 2017/18 ikasturtetako matrikulen zorra ordaintzeko, Eusko Jaurlaritzak UPV/EHUri eman dion Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Zuzendaritzaren diru-laguntza zuzen bat erabili da.

Izapideak egin dira Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusiarekin eta Blas de Otero Unibertsitate Egoitzarekin, izaera honetako 2 eta 3 ikasle har zitzaten 2016/17 eta 2017/18 ikasturtetan, hurrenez hurren.

Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziaren (CRUE) Nazioarteratze eta Lankidetzeta Arloko Batzordeko "Errefuxiatuak" Lantaldearekin lanean hasi gara.

Nazioarteko babesaren ikasleei tutoretzak emateko nahia agertu duten ezagutza arlo ezberdinetako irakasleen datu basea sortu da.

Erakusketa, jardunaldi eta mintegi ezberdinak egin dira nazioarteko babesaren, errefuxiatuen eta giza eskubideen inguruko Sentsibilizazioa eta eztabaida sustatzeko. Jarraian jasota daude.

Nazio Batuek Errefuxiatuentzako duen ACNUR agentziarekin lanean hasi gara, heziketa eta sentsibilizazio jarduerak martxan jartzeko helburuarekin. Lan horren ondorio da "*No dejes a nadie atrás: comprometidos con el Refugio y los ODS en la Universidad*" izeneko proiektua. Proiektuak Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren finantzazioa jaso du.

### Erakusketak



Wooree Bongek 'Refugio' bere lana aurkeztu du. Karlos Santamaria.  
 (Gipuzkoako Campusa)  
 2017ko urriak 20-27



"The Most Important Think. Retratos de una huida. Atzoko eta gaurko errefuxiatuak" erakusketa.  
2017ko apirilaren 10a



ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK-en erakusketa Leioako Ostalaritza Eskolan (Bizkaiko Campusa)  
2017ko martxoaren 21etik 31ra

### Jardunaldiak eta Mintegiak



Genero, GIB eta Garapenerako Lankidetzari buruzko V. Mintegia Psikologia Fakultatea  
2017ko azaroaren 24a.



Migrazioa eta babesa: hesirik gabeko mundu bat.  
Bilboko Hezkuntza Fakultatea. Juliana Aretoa.  
2017ko urriaren 11.



Solasaldia: Babesa eta Asiloa. Zer egin dezaket nik? Karlos Santamaria Zentroa (Gipuzkoako Campusa)  
2017ko ekainaren 13a



Errefuxiatuen krisia eta EBean duen eragina. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Bizkaiko Campusa)  
2017ko martxoaren 28a.



Terrorearen ikuskizuna – Rodrigo Karmy-Arazoi inperiala eta arabiar mundu garaikidea.  
Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea (Bizkaiko Campusa)  
2017ko martxoaren 22a.



GERNIKA 2017 aurkezpena eta solasaldia errefuxiatutako ikasleekin. Liburutegi Nagusiko Biltzar Aretoa (Bizkaiko Campusa).  
2017ko martxoaren 2

## 3.7. Hitzarmenak bultzatzea eta iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloan lan egiten duten entitateekin batera egiten dugun lana ikusgarri egitea

### 3.7.1. Hitzarmenak

Azken urteotan, hitzarmenak sinatu ditugu EAeko eta EAetik kanpoko gizarte erakunde eta entitate ezberdinekin. Hitzarmen horien sinatzeari esker, Unibertsitate-Gizartea harremanak sendotu ditugu. Hitzarmen horien ondorioz, lankidetzak gauzatu ditugu irakaskuntza, prestakuntza eta ikerketa arloetako prestakuntza, sentsibilizazio eta trukaketa programetan. 2017. urtean, jarraian aipatzen ditugun hitzarmenak sinatu dira.

#### Beste erakunde publiko batzuekin sinatutako hitzarmenak

- **Arabako Foru Aldundiaren** eta UPV/EHUren arteko lankidetzaren hitzarmena, Garapenerako Lankidetzaren Proiektuak sustatzeko Arabako Campusean. Hitzarmen honen xedea da 15.000 euroko ekarpena arautzea, "Gaztenpatia: Lan-praktikak eta Gradu Amaierako Lanak Garapenerako Lankidetzaren proiektuetan egiteko programa" proiektua eta II. Nazioarteko Topaketaren antolakuntza diruz laguntzeko. Topaketan Erdialdeko Amerikako aurkako alderdiek parte hartuko dute, hau da, UPV/EHUko (Gaztenpatia) ikasleen praktikak eta Gradu Amaierako Lanak (GrAL) hartu dituzten proiektuen sustatzaileak.
- **Lankidetzarako Euskal Tokiko Erakundearen Elkartearen** (Euskal Fonda) eta UPV/EHUren arteko lankidetzaren hitzarmena. Honi esker, 2016/17 ikasturteko Lan-praktikak eta Gradu Amaierako Lanak Garapenerako Lankidetzaren proiektuetan egiteko UPV/EHUko programak 15.000 euroko diru-laguntza jaso du.
- **Bilboko Udalaren** eta UPV/EHUren arteko Lankidetzaren Hitzarmena. Bere xedea da garapenerako lankidetzaren arloan lehentasunezkoak diren eta UPV/EHUrekin hitzarmen bat sinatua duten herrialdeetako ikasleen eta nazioarteko babesa eskatu edo jaso duten UPV/EHUko ikasleen Bilboko egonaldia eta mantenua diruz laguntzea.

2016/17 ikasturtean zehar, Bilboko Udaleko Berdintasuna, Lankidetzaren, Bizikidetzaren eta Jaiak sailak 8.000 euroko laguntza eman du. Horien onuradunak, Bolivia, Kolonbia eta Saharako 6 ikasle (4 emakumezko eta 2 gizonezko) izan dira. Ikasle horietako batek asiloa eskatu du. Aipatu ikasleek Gradu eta Master ikasketak egin dituzte Ekonomia eta Enpresa Fakultatean, Bilboko Ingeniaritza Eskolan, Arte Ederren Fakultatean, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean eta Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean.

#### Euskal Herriko gizarte erakundeekin

- EAeko Garapenerako Gobernuaren Kanpoko Erakunde (GGKE) ezberdinekin sinaturiko hitzarmenak. Horiei esker, Lan-praktikak eta Gradu Amaierako

Lanak Garapenerako Lankidetzaren proiektuetan egiteko Programa indartu egin da. 17. Taulan jasota daude.

**17. Taula: EAeko GGKEekin 2016/17 ikasturtean sinaturiko hitzarmenak**

UPV/EHUko ikastegia	EHko Lankidetzaren erakundea
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	Osasun-langileen Nazioarteko Elkartearen Espainiako adarra
Psikologia Fakultatea	Euskal Fondoa

- Programa horren barruan, gure erkidegotik kanpoko erakundeekin ere hitzarmenak sinatu ditugu. 18. Taulan jasota daude.

**18. Taula: atzerriko erakundeekin 2016/17 ikasturtean sinaturiko hitzarmenak**

UPV/EHUko ikastegia	Atzerriko lankidetzaren erakundea
Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	CODEINFA
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	CODEINFA
Psikologia Fakultatea	Fundación Huésped
Farmazia Fakultatea	Windlife Conservation Society.

### 3.7.2. Iraunkortasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloan lan egiten duten entitateekin batera egiten dugun lana ikusgarri egitea

UPV/EHUko Iraunkortasuneko Zuzendaritzak, Iraunkortasunari eta Garapenerako Lankidetzari dagokienez UPV/EHUko unibertsitate komunitateari eskaintzen zaion zerbitzua den heinean, unibertsitate komunitatea jomuga duten hedatze eta sentsibilizazio jarduerak antolatzen ditu, ekonomikoki txiroak diren herrialdeetako errealitatea ezagut dezan. Horrez gain, gure inguruko gizartean ematen diren desorekak eta gure egunerokotasunak pertsonen eta lurraren osasunean duen eragina ikusgarri egin nahi ditu ere.

Ondorioz, funtsezkotzat jotzen du taldean lan egitera eta bakea, ekitatea, elkartasuna eta iraunkortasuna bezalako balioen inguruan hausnartzera eta aipatuak praktikan jartzera behartzen gaituzten jarduerak unibertsitatearen egunerokotasunean txertatzea. Ondoko azpiatalak, 2017n antolatutako (bakarka edo lankidetzan) jarduerak zerrendatzen ditu.

#### 3.7.2.1. Ekitaldiak

#### III. Boluntarioria Azoka

100 erakundetik gora bildu ziren III. Boluntarioria Azokan. Azoka 2017ko urriaren 18an garatu zen, UPV/EHUko hiru campusetan. 3. Eranskinak parte hartu duten erakundeak zerrendatzen ditu. Azoka derrigorrezko topaketa gunea bilakatu da,

gizarte erakundeek UPV/EHUko unibertsitate komunitatea sentsibilizatu eta informa dezaten.

Ondokoak izan ziren azokaren helburuak:

- Gizarte parte-hartzea sustatzea unibertsitate komunitatearen barruan.
- Gizarte erakundeek gure inguruan egiten duten lana ikusgarri egitea eta ezagutaraztea.
- Boluntarioek egiten duten lanaren aitortzea sustatzea.
- Elkartasunezko boluntariotzari loturiko balioak zabaltzea.

Azoka UPV/EHUk antolatzen du, Bolunta, Gizalde eta Batekin erakundeen, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen eta UPV/EHUko Ikasle Kontseiluaren laguntzarekin. Erakundeen standak Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko arkupetan (Bizkaiko Campusa), Ignacio Maria Barriola Zentroan (Gipuzkoako Campusa) eta Unibertsitateko Ibilbidean (Arabako Campusa) jarri ziren.

Standez aparte, prestakuntza jarduera ezberdinak antolatu ziren UPV/EHUko ikastegietan. Honako hauek dira aipagarrienak:

#### **Arabako Campusean:**

- Zuzeneko musika: Claudia Morales (ahotsa), Daniel Ortega (baxua) eta Iker Barrientos (kaxa)
- "La salud al mejor precio" antzerkia. Medicus Mundik antolatua.
- Batekinek antolatu zuen boluntariotza tailerra

#### **Bizkaiko Campusean:**

- "Simulacro de emergencia" tailerra. DYAk antolatua.
- "Amazonia" gaiaren inguruko zuzeneko Performance-pintura. Amassunu Ikasle Elkartek antolatua.
- Kaleko antzerkia-Performancea, Termibusetik Mikel Laboa plazaraino.
- Boluntak antolatu zuen Photocalla.
- "Amazonia" gaiari buruzko erakusketa Liburutegian. Amassunu Ikasle Elkartek antolatua.
- "Cómo generar innovación social de una forma sencilla y eficaz" tailerra. Cibervoluntarios elkarteak antolatua.

#### **Gipuzkoako Campusean:**

- 13 "Voluntariado ambiental para tratar la contaminación de las basuras marinas" hitzaldia. Surfrider Ocean initiatives-en eskutik
- 14 Kirol egokitua: saskibaloia eta futbola. Gipuzkoako Kirol Federazioak antolatua
- 15 "Voluntariado europeo y voluntariado local" mahai ingurua. Raebnai Direct Europe Donostia-ren eskutik
- 16 "Una mirada a la exclusión social" hitzaldia. Cáritas Gipuzkoak antolatua
- 17 Lankidetzeta jolasak. Interred Euskal Herria elkarteak antolatuta
- 18 Erabilitako mugikorrek jasotzeko kanpaina. Tecnología libre de conflicto-ren eskutik
- 19 "Experiencias de voluntariado. Cooperando en los países del Sur" hitzaldia. Haurralde Fundazioak antolatua

UPV/EHUrentzat, gizarte eta boluntariotza erakundeen presentzia hiru campusetan funtsezkoa da unibertsitate mailako gizarte konpromisorako.

Ikasleei eta boluntariotza elkarteei egin zitzaaien gogobetetasun inkestan jasotako erantzuna "oso pozgarria" izan da.

## Beste ekitaldi batzuk

2017. urtean zehar, ondoko erakusketak eta informazio hitzaldiak antolatu dira:

### Erakusketak



"Save The Children" argazki erakusketa  
 Liburutegi Nagusiko atondoa (Bizkaiko Campusa)  
 2017ko martxoaren 1etik 31ra



Boluntariotzari buruzko argazki erakusketa (Sareginez)  
 Erakusketa aretoa (Gipuzkoako Campusa)  
 2017ko urtarrilaren 30etik otsailaren 8ra arte



"Amazonia" gaiaren inguruko zuzeneko Performance-pintura  
 Mikel Laboa plaza (Bizkaiko Campusa)  
 2017ko urriaren 18a.

### Jardunaldiak eta Mintegiak



La salud al mejor precio (Plataforma Tirante)  
 Mikel Laboa plaza (Bizkaiko Campusa)  
 2017ko urriaren 20a.



"Resistencia de los pueblos por la defensa del territorio" solasaldia  
 Gizarte Langintza Eraikina (Vitoria-Gasteiz)  
 2017ko urriaren 10a.



boluntariotza eta parte-hartzerako agentzia  
 agencia para el voluntariado y la participación social  




Udako boluntariotza kanpainen aurkezpena  
 Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Elkano).  
 2017ko martxoaren 30a.



Azkenik, aipatu ere ondoko jardunaldi eta/edo biltzarretan izandako parte-hartzea:

- Klimagune Workshop 2017 “Climate change and public engagement”. Basque Center for Climate Change (BC3) zentroak antolatua, Bizkaia Aretoan egin zen (Bilbao) 2017ko maiatzaren 31n.
- “1<sup>st</sup> international Conference on Engineering Education for the XXI century”. Castellóko Jaume I Unibertsitateak (UJI) eta UPV/EHUK antolatu zuten eta Castellón egin zen 2017ko uztailaren 6an eta 7an.
- “Hezkuntza, garapen iraunkorrerako helburuen oinarria” jardunaldiak. Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUKo UNESCO Katedrak antolatuta, Bizkaia Aretoan (Bilbo) egin ziren 2017ko irailaren 5ean, 6an eta 7an.
- Global University Network for Innovation (GUNI) erakundeak antolatu zuen nazioarteko biltzarra. “International Conference on Sustainable Development Goals: Actors and Implementation” izenekoa, irailaren 18an eta 19an egin zen Bartzelonan.
- “Derechos Humanos, género y desarrollo Humano Sostenible” izeneko ikastaro sorta. Calcuta Ondoan GGKEk antolatu zuen.

### **3.7.2.2. Gizartearekin partekatuz: argitalpenak**

Gizarteari ezagutza transferitzeko eta ezagutza hori trukatzeko argitaratutako argitalpenei dagokienez, 2017n bi libururen ekoizpenean eta zabaltzean izandako parte-hartzea nabarmendu beharra dago.

- “Research in Economical Ecologies at the University of the Basque Country” UPV/EHUKo Ekonomia Ekologiko eta Ekonomia Politikorako Ikerketa Taldeak (EKOPOL) argitaratu zuen.
- “New competences in Engineering Education in the area of sustainability and university social responsibility”. 1<sup>st</sup> international Conference on Engineering Education for the XXI century biltzarreko akten liburua.

## **ESKER ONA**

UPV/EHUKo Iraunkortasuneko Zuzendaritzatik, gure eskerrik zintzoena adierazi nahi diegu memoria honetan jasotako jarduera guztiak antolatu ahal izateko eskuzabaltasun osoz beren denboraren zati bat eskaini diguten pertsona guztiei, beren babesik gabe ezinezkoa bailitzateke egin dugun guztia egitea.

Mila esker guztioi.

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# ERANSKINAK

## 1. ERANSKINA: Iraunkortasunerako Berrikuntza Proiektuetatik jaiotako argitalpenak (2016/17)

Azkorra, Z.; Ortuzar, A.; Pérez, E. (2017) Designing an environmentally sustainable green roof in the Engineering School of Bilbao. 1<sup>st</sup> International Conference on Engineering Education for the XXI century. Universitat Jaume I. Castelló. 2017ko uztaialak 6-7.

Barrenetxea, M.; Mijangos J.J.; Cardona, A.; Olaskoaga, J.; Barandiaran, M. (2017). Trabajo de Fin de Grado: herramienta para implicar al alumnado en la resolución de problemas sociales. V Congreso Internacional de Docencia Universitaria (CINDU 2017). Vigo, 2017ko ekainak 15-17.

Cruz, E.; López, A.L.; López de Arana, E. (2016). Comienzo de una experiencia de aprendizaje-servicio universitario a través de los trabajos de fin de grado (TFG) de Educación Infantil en la Facultad de Educación y Deporte de Vitoria-Gasteiz de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU). VII Congreso Nacional y II Internacional de Aprendizaje-Servicio Universitario, APSU7 2016. Santiago de Compostelako Unibertsitatea, 2016ko urria.

Cruz, E.; López, A.L.; López de Arana, E. (2017). Facilitación del cambio cultural en un centro educativo: transformando los trabajos fin de grado en educación infantil a través de una experiencia basada en aprendizaje servicio. VIII Congreso Nacional y III Internacional de Aprendizaje-Servicio Universitario, APSU7 2017. Pablo Olavide Unibertsitatea, Sevilla, 2017ko urria.

Elías, A.; Ortiz de Zárate, I.; Sáez de Cámara, E.; Lopez-Uriónabarrenechea, A.; Ibarrola, A.; Laresgoiti, M.F.; Ibarra, G.; Rojo, N.; Gallastegui, G. (2017) ¿Se pueden gestionar los residuos orgánicos de una Escuela Universitaria mediante compostaje? Proyecto CompostING: Implicando a la comunidad universitaria en el reciclaje de biorresiduos y sus aplicaciones, Escuela de Ingeniería de Bilbao. Congreso Universitario de Innovación Educativa en las Enseñanzas Técnicas (CUIEET 25). Badajoz, 2017ko irailak 5-8.

González Alriols, M.; Campos, A.; Ulacia, A.; Urresti, A.; Ibarra, G.; Antxustegi, M. (2017) How could engineering students improve local sustainability? A practical Project. 19<sup>th</sup> International Conference on Teaching, Educations & Learning (ICTEL). Roma, Italia. 2017ko ekainak 7-8.

Lasa A.; Aranzeta, L.; Zaldibar, H.; Churruca, I.; Ruiz, A.; Urkiza, I.; Rico, A.; Bustamante, M.A.; Simón, E.; Navarro, V.; Miranda, J. (2017). Análisis de resultados de intervención en educación primaria mediante una unidad didáctica sobre celiacía. XIV Foro Internacional sobre la Evaluación de la Calidad de la Investigación y de la Educación Superior, FECIES. Granada, 2017ko ekainak 22-24.

Lopez-Uriónabarrenechea, A.; Elías, A.; Sáez de Cámara, E.; Ortiz de Zárate, I.; Laresgoiti, M.F.; Ibarrola, A.; Rojo, N.; Gallastegui, G.; Ibarra, G. (2017) CompostING, implicando a la comunidad universitaria de la Escuela de INGeniería en el reciclaje de bioresiduos y sus aplicaciones. Libro de Actas. VII Simposio Iberoamericano en Ingeniería de Residuos: 310-315.

Marieta, C. (2017). Evaluación de los aspectos Energéticos y Medioambientales de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea para una planificación



urbana sostenible. Congreso Europeo sobre Eficiencia Energética y Sostenibilidad en Arquitectura y Urbanismo. Donostia, 2017ko uztaila.

Navarro, V.; Ruiz, A.; García, A.; Churruca, I.; Miranda, J.; Bustamante, M.; Simon, E.; Lasa, A. (2017). Design and implementation of a celiac disease workshop in the classroom. 10<sup>th</sup> annual International Conference of Education, Research and Innovation, ICERI. Sevilla, 2017ko azaroak 16-18.

Rodríguez, A.; Ochoa de Eribe, I., Akizu, O. (2017). Formación en sostenibilidad en las titulaciones de grado en Ingeniería: diagnóstico y sugerencias para suplir carencias. 1<sup>st</sup> International Conference on Engineering Education for the XXI century. Universitat Jaume I. Castelló. 2017ko uztailak 6-7.

Tellería-Aramburu, N.; Bermúdez-Marín, N.; del Val-Muñoz, C.; Encinas, D.; Rocandio, A.M.; Telletxea, S.; Basabe, N.; Rebato, E.; Alegria-Lertxundi, I.; Arroyo-Izaga, M. (2017). Emisión de gases con efecto invernadero relacionados con el consumo de alimentos y factores asociados en estudiantes universitarios del País Vasco. I Congreso de Alimentación, Nutrición y Dietética. Academia Española de Nutrición y Dietética. Zaragoza, 2017ko azaroak 10-11.

Uskola, A.; Maguregi, G.; Berciano, A. (2017). Oportunidades para trabajar la Educación Ambiental en la formación inicial del profesorado de primaria. X Congreso Internacional sobre investigación en didáctica de las ciencias. Sevilla, 2017ko irailak 5-8.

Uskola, A.; Maguregi, G., Berciano, A. (2017). Oportunidades para trabajar la Educación Ambiental en la formación inicial del profesorado de primaria. Enseñanza de las Ciencias, nº extraordinario (2017): 3479-3485. ISSN (digital): 2174-6486.

Zuazagoitia, D; Ruiz-Gonzalez, A. El huerto ecológico del Campus de Álava (UPV/EHU): cuatro años de cosecha compartida. II encuentro de Huertos EcoDidácticos. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, 2017.



## 2. ERANSKINA: 2016/17 ikasturtean UPV/EHUko ikasleen boluntarioritza jarduera hartu duten erakundeak

- Adsis Fundazioa
- Alai Batza
- Altzako Ibiliz Solidaritza taldea
- AMPA Kitzi; Pio Baroja LHE
- Amurrio Aisia Eskaut Taldea
- Oiz-Anboto Unitate Pastoraleko Gazteria arloa
- ARGIBE
- Arrupe Elkartea Donostia
- Buru gaixotasuna duten pertsonen eta senideen Arabako elkartea (ASAFES)
- Amigos de Ritsona elkartea
- Asociación Claretiana para el desarrollo humano: Sortarazi
- Loizaga Kultura elkartea
- Los Angeles Eskaut Taldea Kultura Elkartea
- Onda Euskadi Kultura Elkartea
- Arabako Esklerosi Anizkoitzaren Elkartea(AEMAR)
- Arabako Esklerosi Anizkoitzaren Elkartea(AEMAR)
- Minbizidun Haurren Gurasoen Bizkaiko Elkartea (ASPANOVAS)
- Alaitasuna Aisialdi Elkartea
- Aurrerantz Aisialdi Elkartea
- Nuestro Club Aisialdi Elkartea
- Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartea (AECC)
- Hazi Eta Ikasi elkartea
- Unadikum elkartea
- ASPACE
- Atzegi
- AVEC Ouarzazate (Maroko)
- Ayuda en Acción
- Bali Life Foundation (Indonesia)
- Belatzak Eskaut Taldea
- BERAKAH
- Berri Bide Eskaut Taldea (Euskalerriko Eskautak)
- Bizilagunak
- Boveda Gazte Elkartea
- Txikilandia AT
- Cáritas
- Centros Esperanza de Lábrea y Tapauá
- Club Atletismo Sendoa
- Arabako HIESaren Kontrako Batzordea
- CROMA
- Espainiako Gurutze Gorria (CRE)
- DYA Bide Laguntza Elkartea
- Elizalde Skaut Taldea



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

- Errekaldeberriko Eskautak
- Esperantza Eskaut Kultur Elkarte
- Etorkizuna Geroa Eskaut Taldea
- Euskal Fondoa
- Euskal Herriko Islamiar Federakundea (FIVASCO)
- Fideas Fundazioa
- Fundación para el Desarrollo del Centro Biológico Las Quebradas (FUDEBIOL)
- Adsis Fundazioa
- Itaka-Escolapios Fundazioa
- Euskal Herriko Down Syndromearen eta bestelako Adimen Urritasunen Fundazioa
- Gautena
- Gazteleku
- Goizalde eskaut taldea
- Gorabide
- Greenpeace
- Gaztetxuak Txistulari Taldea
- Haurralde Fundazioa
- Hermanas Hospitalarias
- Hogar de Cristo
- San Juan de Dios Ospitalea
- Ingeniería para la Cooperación - Lankidetzarako Injeniaritza (IC-LI)
- Indautxuko eskautak SEONNEE
- Instituto tecnológico Padre Segundo Montes
- Inurri Eskaut Taldea
- Jóvenes 88 Gazteak
- Juan Ciudad
- KAEB NAI Kultur arteko Ekintza Berria
- Euskal Herriko Pertsona Ezinduen Kirol Elkarte (KEMEN)
- Kimuak Aisialdi Elkarte
- PAUMA
- PROYDE-PROEGA Fundazioa
- Rio De Oro
- Saharaztan
- SeoBirdlife
- SETEM Hego Haizea
- SOS Arrazakeria
- Sunu Buga Buga
- TODOGAZTE
- Txipristin aisialdi taldea
- Urbegi Bizia Eskaut Taldea
- Xauli elkarte
- Zestoako Udal Udalekuak
- Zinhezba
- Ziztu Bizian Eskaut Taldea





### 3. ERANSKINA: III. Boluntariotza Azokan parte hartu zuten erakundeak

Arabako Campusa	Bizkaiko Campusa	Gipuzkoako Campusa
<a href="#">AFA ARABA</a>	<a href="#">ACABE</a>	ADINKIDE - FUNDACIÓN AMIGOS DE LOS MAYORES
<a href="#">ACCEM</a>	<a href="#">ACOMPAÑA LAGUNTZEN</a>	<a href="#">AFAGI</a>
<a href="#">AECC</a>	<a href="#">ADSIS Fundazioa</a>	<a href="#">ASPACE</a>
AFROAMERICANA	<a href="#">AECC</a>	<a href="#">ATECE</a>
<a href="#">AGLE</a>	<a href="#">ALCER</a>	<a href="#">CARITAS GIPUZKOA</a>
<a href="#">APDEMA</a>	<a href="#">AMASSUNU</a>	<a href="#">DYA GIPUZKOA</a>
<a href="#">ARESBI</a>	<a href="#">AMNISTIA INTERNACIONAL</a>	<a href="#">GEHITU</a>
<a href="#">ASAFES</a>	<a href="#">APNABI</a>	<a href="#">GIZALDE</a>
<a href="#">ASAJER</a>	<a href="#">APRENDETEA</a>	<a href="#">GREF - GIPUZKOAKO KIROL EGOKITU</a>
<a href="#">ASASAM</a>	<a href="#">ARGIBE</a>	<a href="#">FEDERAZIOA</a>
Asociación de Integración, Cultural y de Cooperación hispano-sudamericana "BERRI-ÑANN"	<a href="#">ASEBI</a>	<a href="#">GURUTZE GORRIA</a>
<a href="#">ASPACE</a>	<a href="#">ASPANOVAS</a>	<a href="#">HAURRALDE FUNDAZIOA</a>
<a href="#">ASPASOR</a>	<a href="#">AVIFES</a>	<a href="#">HAZI ETA IKASI</a>
ATECE	<a href="#">BIDESARI</a>	<a href="#">HURKOA</a>
<a href="#">Banco de Alimentos</a>	<a href="#">BOLUNTA</a>	<a href="#">INTERRED EUSKAL HERRIA</a>
<a href="#">BIDE BIDEAN</a>	<a href="#">C.P. ARTATSE</a>	<a href="#">IZAN FUNDAZIOA</a>
<a href="#">C.P.N. Azterlariak Tiempo Libre</a>	<a href="#">CARITAS BILBAO</a>	<a href="#">JATORKIN</a>
<a href="#">CEAR</a>	<a href="#">CRUZ ROJA BIZKAIA</a>	<a href="#">KAEBNAI DIRECT EUROPE DONOSTIA</a>
<a href="#">CRUZ ROJA</a>	<a href="#">DISLEBI</a>	MUNDUKO BEGIAK
<a href="#">DOWN ARABA</a>	<a href="#">DYA</a>	<a href="#">NAGUSILAN</a>
<a href="#">FEDER</a>	<a href="#">EMAUS FUNDACIÓN SOCIAL</a>	<a href="#">SOS ARRAZAKERIA</a>
<a href="#">FEVAPAS</a>	<a href="#">ESCUELA DE TL (Fundación EDE)</a>	SURFRIDER
<a href="#">INSOLA</a>	<a href="#">EUSKALHERRIKO ESKAUTAK</a>	
<a href="#">ITXAROPENA</a>	<a href="#">FEDER Delegación País Vasco</a>	
Kuentame	<a href="#">FUNDACIÓN ELLACURIA</a>	
<a href="#">MEDICUS MUNDI</a>	<a href="#">FUNDACION ETORKINTZA</a>	
<a href="#">Mujeres en diversidad</a>	<a href="#">FUNDACIÓN FAIR SATURDAY</a>	
	<a href="#">FUNDACION GIZAKIA</a>	
	<a href="#">FUNDACION INTEGRANDO</a>	



Radix;2

[SAHARA ELKARTEA](#)

[SECOT](#)

[TALUR](#)

[FUNDACIÓN ITAKA](#)

[FUNDACION JUAN CIUDAD \(HOSPITAL SAN JUAN DE DIOS\)](#)

[FUNDACIÓN MIRANDA](#)

[FUNDACION ONCE](#)

[FUNDACION SINDROME DE DOWN PAIS VASCO](#)

[FUNDACION VICENTE FERRER](#)

[FUTUBIDE](#)

[GOIZTIRI](#)

[GORABIDE](#)

[ICLI](#)

[INGENIERIAS SIN FRONTERAS \(ISF\)](#)

[INTERED](#)

[IZANGAI](#)

[KALE DOR KAVIKO](#)

[KCD-ONGD](#)

[LEVAR](#)

[ASOCIACION CULTURAL LOIZAGA](#)

[MANOS UNIDAS](#)

[MÉDICOS DEL MUNDO / MUNDUKO MEDIKUAK](#)

[MEDICUS MUNDI BIZKAIA](#)

[MEDICOS SIN FRONTERAS](#)

[MUNDUKO BEGIAK FUNDAZIOA](#)

[OXFAM INTERMON](#)

[RECICLANET](#)

[TELEFONO DE LA ESPERANZA](#)

[TIERRA DE HOMBRES](#)

[UNRWA EUSKADI](#)

[URIBE COSTA](#)

[YAN-LUR MADRE TIERRA](#)



## 4. ERANSKINA: UPV/EHUko prentsa oharrak

- 2017/05/12  
[Elikagairik ez xahutzea helburu](#)  
Erreportajea. Campusa
- 2017/06/30  
[Gaztenpatia: «Bikaina, ikasketa prozesu ahaztezina, errepikatzeko modukoa»](#)  
Erreportajea. Campusa
- 2017/07/07  
[Unibertsitatea laborategi bizidun bilakatu nahian](#)  
Erreportajea. Campusa
- 2017/07/28  
[14 ikasle errefuxiatuk ikasketak jarraitzen dituzte UPV/EHU](#)  
Erreportajea. Campusa
- 2017/09/15  
[Unibertsitateetan Mugikortasun Iraunkorraren aldeko Europako Sarearekin bat egin du UPV/EHUk](#)  
Berria. Campusa
- 2018/10/19  
[Ehun gizarte-elkartek hartu dute parte UPV/EHUko Boluntariotzaren III Azokan](#)  
Erreportajea. Campusa